

EUSKADIKO GAZTEEN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

2009ko ABENDUA



Datu nagusien sintesia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Gazteria eta Gizarte Ekintzarako
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud y Acción
Comunitaria



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2010

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Edizioa:	2.a, 2010eko iraila
1. argitaraldia:	2011ko abuztua
Ale-kopurua:	100 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Egileak:	Nieves Corcuera Bilbao, Nekane Garmendia Eizagirre eta Ainara Iturburu Ayerdi Gazteen Euskal Behatokia www.observatoriojuventud.euskadi.net
Itzulpena:	IVAP
Fotokonposaketa:	Ipar, S. Coop. Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao
Inprimaketa:	Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua Servicio de Imprenta y Reprografía del Gobierno Vasco
Lege Gordailua:	VI 582/2010

Aurkibidea

1. Sarrera eta metodologia	5
2. EAE-ko gazteak: ezaugarri orokorrak	6
2.1. Gazteen kopurua gutxitu egin da, eta haien demografia-portzentajea biztanleria osoarekiko ere bai	6
2.2. Atzerritarren indizeak gora egin du	8
3. Laneratzea eta egoera ekonomikoa	10
3.1. % 41 lanean ari da, % 39 ikasten ari da eta % 10ek bi jarduerak uztartzen ditu	10
3.2. Azken hamarkadan biztanleria gazte osoaren jarduera-tasa murriztu egin da eta emantzipazio-tasak bere horretan jarraitu du	11
3.3. Langabezia-tasa bikoiztu egin da urtebetean, eta biztanleria osoaren langabezia-tasa baino askoz ere handiagoa da oraindik ere	12
3.4. Lan-ezegenkortasuna eta kontratuen behin-behinekotasuna oso handiak dira oraindik ere	14
3.5. Familia da oraindik ere diru-iturri nagusia	17
3.6. Eskura diru gutxi izatea eta pobrezia-maila handiak edukitzea familiaren laguntzaren bidez konpentsatzen da askotan	18
4. Etxebizitza eskuratzea	20
4.1. Emantzipazio-tasek gora egin badute ere, gehienek jatorrizko familiarekin bizitzen jarraitzen dute	20
4.2. Etxebizitzaren prezioa da oraindik ere emantzipatzeko zailtasun nagusia	21
4.3. Behera egin du Etxebiden eskaera egin duten gazteen kopuruak, eta bere horretan jarraitzen du etxebizitza erostea alokairuan hartzea baino nahiago duten gazteen kopuruak	23
5. Hezkuntza eta lanerako prestakuntza	24
5.1. Hezkuntza-sistemari buruzko balorazioak hobera egin du, bai eta Lanbide Heziketari buruzko balorazioak ere	24
5.2. Eskolatzetasek eta prestakuntza-mailak bere horretan jarraitzen dute	25
5.3. Laneratze-maila hobea da Lanbide Heziketako, unibertsitateko eta Lanerako Prestakuntzako ikasketak amaitu ondoren	28

6. Euskararen jakite-maila eta erabilera	30
6.1. Gazte elebidunen kopuruak gora egin du azken urteotan	30
6.2. Euskara dakiten pertsonen erdiek batez ere gaztelaniaz hitz egiten dute lagunekin eta familiarekin	32
7. Osasuna eta osasun-arriskuak	34
7.1. Euskadiko gazteek osasun ona dutela eta forma fisiko onean daudela irizten diote	34
7.2. Heriotza-tasa erdira murriztu da, eta zirkulazio-istripuek eragiten dute oraindik ere heriotza gehien	35
7.3. Haurdunaldiaren borondatezko etenduren kopuruak gora egiten jarraitzen du EAEn	37
7.4. GIBen bidezko infekzioen detekzio-kopuruak gora egiten jarraitzen du, baina gutxitu egin da hiesaz kutsatutako kopurua	38
7.5. Jaitsi egin da zertxobait substantzia psikoaktiboak kontsumitzen hasteko adina	40
7.6. Tabakoaren kontsumoak gora egin du gazte helduen artean	41
7.7. Alkoholarekin gehiegizko kontsumoaren tasek eta askotan mozkortzen diren gazteen ehunekoak behera egin dute	42
7.8. Behera egin du legez kanpoko substantzia guztien kontsumoak, cannabisarenak salbu, bai eta drogen mendekotasunagatik tratamendua jasotzen duten gazteen kopuruak ere	43
7.9. Osasun mentaleko arazoak dituzten gazteen ehuneko txikiagoa da oraindik ere biztanleria osoarena baino, eta emakumeak dira kaltetuenak	46
8. Balioak, jarrerak eta portaerak	48
8.1. Gehienek uste dute gazteen egoera hala-moduzkoa dela, nahiz eta ona dutela uste dutenen kopuruak gora egin	48
8.2. Politikarekiko interesa duen gazteen kopuruak behera egin du, EAEko demokraziaren funtzionamenduari gustura daudenen kopuruak, bai eta erlijioarekiko lotura dutenen kopuruak ere	49
8.3. Gora egin du kolektibo batzuekiko intolerantzia-sentimenduak, bai eta etorkinenganako arbuio-sentimenduenak ere	50
8.4. Genero-indarkeriako kasuen kopuruak gora egin du	52
8.5. Gazteek gero eta garrantzi handiagoa ematen diote sexualitateari	54
8.6. Gehienak oinez ibiltzen dira batetik bestera, nahiz eta autoa izan gehien erabiltzen den garraiobidea asteburuetan batetik bestera mugitzeko	55
8.7. Lau gaztetik hiruk egunean hiru ordu libre baino gehiago dituzte aisiarako, eta batez ere lagunekin egoteko erabiltzen dituzte	56
8.8. Gero eta gehiago dira etxean ordenagailua eta Internetarako sarbidea duten gazteak, eta ia gazte guztiek dute eskuko telefonoa	57
8.9. Gazteen % 6,4k soilik egiten ditu boluntario-jarduerak, baina hamar gaztetik lau dira elkarteren bateko kide	58
9. Bibliografia	60

Sarrera eta metodologia

1

Gazteen Euskal Behatokiak Euskadiko gazteen egoerari buruzko diagnostiko-txosten bat egin zuen 2009ko irailaren eta abenduaren artean, oinarritzko erreferentzia-elementua izan dadin EAEko III. Gazte Plana egiteko. Euskadiko gazteen errealitatea nolakoa den jakiteko, EAEn bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen egoerari buruzko azterketa deskribatzailea biltzen da txostenean, eta honako gaikako arlo hauei erreparatu zaie: ingurune demografikoa, lana, etxebizitza, hezkuntza, euskara, osasuna, eta gazteen iritziak, balioak eta portaerak.

Esku artean duzun lana egiteko bigarren mailako informazio-iturriak erabili dira —besteak beste, lehendik egindako inkestak, erregistroak, erroldak, datu-baseak eta gazteei buruzko berariazko txostenak—, eta horiei esker, aztertu ditugun arloetan EAEko gazteen egoera xehetasunez bildu ahal izan da. Horrez gain, zenbait arlotan, bilakaera zein izan den ere aztertu ahal izan dugu, eta, halaber, hurbileko lurralde-eremuetako gazteen egoerarekin alderatu ahal izan dugu. Diagnostiko-txostena egiteko datuak biltzeko erabili ditugun informazio-iturriak txostenaren amaieran erantsi ditugu.

Dokumentu honetan, laburbilduta biltzen dira diagnostiko-txostenaren datu nagusiak. Informazio gehiago nahi izanez gero, Gazteen Euskal Behatokian txostena osorik eska daiteke, edo datuen jatorrizko datuak kontsulta daitezke.

**Dokumentu honetan,
laburbilduta biltzen dira
EAEko gazteen egoerari
buruzko diagnostikoaren
datu nagusiak.
Diagnostikoaren txostena
2009ko abenduan egin zen**

EAE-ko gazteak: ezaugarri orokorrak

Euskadin biztanleriak, oro har, % 2,8 egin du gora 1996. eta 2008. urteen artean, eta gazteen kopuruak —15 eta 29 urte bitarteko pertsonen kopuruak—, berriz, behera egin du pixkanaka (–% 30,2)

2.1. Gazteen kopurua gutxitu egin da, eta haien demografia-portzentajea biztanleria osoarekiko ere bai

Gaur egun, EAEko gazteek biztanleria osoaren % 16,4 hartzen dute. Euskadin biztanleriak, oro har, % 2,8 egin du gora 1996. eta 2008. urteen artean, eta gazteen kopuruak —15 eta 29 urte bitarteko pertsonenak—, berriz, behera egin du

1. taula


15 eta 29 urte bitarteko gazteen eta biztanleria osoaren bilakaera eta portzentajeazko aldakuntza. EAE, 1996, 2001, 2005 eta 2008

	Biztanle gazteak		Biztanleria osoa	
	Abs.	Δ % (1996=0)	Abs.	Δ % (1996=0)
1996	507.466	0	2.098.055	0
2001	453.158	–10,7	2.101.477	0,2
2005	396.135	–21,9	2.124.846	1,3
2008	354.176	–30,2	2.157.112	2,8

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Errolda (1996 eta 2001), Eustat. Biztanleen Udal Errolda, 2005eko eta 2008ko urtarilaren 1ean, INE.

1. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteen eta biztanleria osoaren portzentajeazko aldakuntza. EAE, 1996, 2001, 2005 eta 2008 (1996=0)




Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Errolda (1996 eta 2001), Eustat. Biztanleen Udal Errolda, 2005eko eta 2008ko urtarilaren 1ean, INE.

pixkanaka. Gazte-kopuruaren beherakada % 30,2koa izan da, eta pixkanaka eta etenik gabe gertatu da azken hamabi urteen joanean.

Izan ere, hurrengo grafikoan ikusten denez, gazteen indizeak, edo gazteen proportzioak biztanleria osoarekiko, etengabe egin du behera azken urteotan EAEn; hain zuzen, 1996. urtean % 23,9 zen eta 2008. urtean % 16,4. Eurostatek 2008rako ematen dituen datuen arabera, biztanleria osoarekiko gazteen proportzio hori oso antzekoa da, besteak beste, Italian (% 16,3); Espainian (% 19,3) eta Frantzian (% 19,0), berriz, gazteen proportzioa handiagoa da.

2. grafikoa
Gazteen indizearen bilakaera (%). EAE, 1996, 2001, 2005 eta 2008



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Errolda (1996 eta 2001), Eustat. Biztanleen Udal Errolda, 2005eko eta 2008ko urtarrilaren 1ean, INE.

Gazteen kolektiboaren barruko osakerari dagokionez, feminitate-tasak apenas aldatu dira eta % 95,0 inguru izaten jarraitzen dute adin-tarte guztietan; horrek esan nahi du 95 emakume gazte daudela 100 gizon gazteko EAEn. Bost urteko adin-tarteak kontuan hartuz gero, datuek adierazten dute 25-29 adin-tartea dela ugariena gazteen artean. Gazte-talde hori hazi egin da urteen joanean, eta 15-19 adin-tarteko gazteen kopuruak, berriz, behera egin du, bai eta 20 eta 24 urte bitarteko taldeak ere. Horrenbestez, esan daiteke zahartze-prozesu bat gertatu dela gazteen kolektiboaren barruan, eta, horretan, halaber, gazte helduen proportzioa gero eta handiagoa dela, nerabegarotik hurbil daudenekiko.

Gazteen indizeak, edo gazteen proportzioak biztanleria osoarekiko, etengabe egin du behera 1996. urtetik (% 23,9) 2008. urtera (% 16,4) bitartean

Gizonen eta emakumeen arteko proportzioak bere horretan jarraitzen du: 2008. urtean 95 emakume gazte daude adin bereko 100 gizonen

Gazteen kolektiboa bera zahartu egin da, 25 eta 29 urte bitarteko proportzioa gero eta handiagoa baita, nerabegarotik hurbil daudenekiko

Gazteen kolektiboaren ezaugarri soziodemografikoen barruan izandako beste aldaketa garrantzitsu bat gazte atzerritarren portzentajearen igoera da


Gazte atzerritarren biztanleria % 1.076,5 hazi da azken hamabi urteetan

2.2. Atzerritarren indizeak gora egin du

Atzerritarren kopuruak nabarmen egin du gora azken urteotan EAEn. 1996. urteaz geroztik, atzerritarren kolektiboa hazi egin da, 104.117 atzerritar gehiago daude; Euskadiko biztanleria osoarekiko haiek hartzen duten proportzioa, berriz, % 0,6tik (1996) % 5,4ra (2008) igo da. EAEn bizi diren atzerritarren ezaugarria, bestalde, hau da: gazteagoak dira, Euskadiko biztanleria osoaren aldean. Izan ere, gaur egun, haien gaztetetasun-indizea % 33,0koa da, eta biztanleria osoarena, berriz, % 16,4koa. Horrez gain, atzerriko gazte-kopuruaren igoera dezente handiagoa izan da atzerriko biztanleria osoarena baino: 1996. urtean 3.365 gaztek ez zuten Espainiako nazionalitatea, eta 2008. urtean, berriz, Espainiako nazionalitatea ez zuten gazteen kopurua izugarri hazi zen, izan ere, 39.588 ziren; hau da, hamabi aldiz gehiago.

3. grafikoa

Erroldatuta dauden 15 eta 29 urte bitarteko atzerritar gazteak (zenbaki absolutuak). EAE, 1996, 2006 eta 2008




Iturria: 1996. urteko datuak Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldakoak dira, Eustat. 2006ko eta 2008ko epealdiko datuak Biztanleen Udal Erroldakoak dira, urtarriaren 1ekoak, INE.

Horregatik, beraz, gazte atzerritarren portzentajeak etengabe egin du gora biztanleria osoarekiko azken urte hauetan: 1996. urtean EAEn gazte guztien % 0,6 ziren gazte atzerritarrak; 2008. urtean, berriz, % 11,2; hau da, 20 aldiz handitu da kopurua. Horren guztiaren ondorioz, gazteen kolektiboaren barruko osaera nabarmen aldatu da, gero eta pluralagoa baita, nazionalitateari dagokionez. Jatorriari dagokionez, gehienak Hego Amerikako gazteak dira; ondoren, Europatik etorritakoak; eta, azkenik, Afrika eta Asiatik etorritakoak.

4. grafikoa


Atzerritarren indizea 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean eta atzerritarren indizea biztanleria osoan (%). EAE, 1996, 2006 eta 2008



Iturria: Geuk egina, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Errolda abiapuntu hartuta. 1996. urteko datuak Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldakoak dira, Eustat. 2006ko eta 2008ko epealdiko datuak Biztanleen Udal Erroldakoak dira, urtarilaren 1ekoak, INE.

5. grafikoa

EAEn erroldatuta dauden gazte atzerritarren banaketa, nazionalitatearen arabera (%). EAE, 2008



Iturria: Biztanleen Udal Errolda, urtarilaren 1ean, INE.

1996. eta 2008. urteen artean gazte atzerritarren proportzioa 20 aldiz handitu da biztanleria gaztearekiko, eta % 11,2 egiten dute


Laneratzea eta egoera ekonomikoa

2008. urtean, gazteen % 51,1 lanean ari zen, eta gazteen % 39,1en jarduera nagusia ikastea zen; langabeziak, berriz, gazteen % 7,5i eragiten zion

3.1. % 41 lanean ari da, % 39 ikasten ari da eta % 10ek bi jarduerak uztartzen ditu

Euskadiko gazteak 2008 azterketan bildutako datuek erakusten dutenez, urte horretan Euskadiko gazteen % 41,0 lanean ari zen, gazteen % 39,1rentzat ikastea zen zeregin nagusia, % 10,1ek lana eta ikasketak uztartzen zituen, eta langabezia, berriz, % 7,5 zegoen. Horrenbestez, Euskadiko gazteen zeregin nagusiak ikastea eta lan egitea ziren.

6. grafikoa
15 eta 29 urte bitarteko gazteen jarduera-egoera (%).
EAE, 2008



Iturria: Geuk egina, *Euskadiko gazteak 2000*, *Euskadiko gazteak 2004* eta *Euskadiko gazteak 2008* azterlanetako datuak abiapuntu hartuta, Gazteen Euskal Behatokia.

3.2. Azken hamarkadan biztanleria gazte osoaren jarduera-tasa murriztu egin da eta emantzipazio-tasak bere horretan jarraitu du

Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestan (BJA) —EUSTAT erakundeak egina— jasotako datuek adierazten dutenez, 2009ko bigarren hiruhilekoari buruzko datuak oinarri hartuta, gazteen gaur egungo lan-jardueraren tasa (% 56,2) biztanleria osoaren tasaren oso antzekoa da (% 55,3). Lanean ari diren edo lan bila dabiltzan pertsonen ehunekoak, horrenbestez, oso antzekoak dira gazteen artean eta biztanleria osoan EAEn.

Hala ere, lan-jarduerari buruzko tasa horien bilakaera desberdina izan da. Biztanleria osoari buruzko lan-jardueraren tasa ez da askorik aldatu urteen joanean, baina gazteei dagokien tasak, berriz, % 6,8 egin du behera. Datu horrek agerian uzten du gazteen artean biztanle aktiboaren proportzioak behera egin duela pixkanaka. Beherakada hori gizon gazteen zein emakume gazteen artean gertatu da.

7. grafikoa

Biztanleria osoaren eta 16 eta 29 urte bitarteko gazteen jarduera-tasen bilakaera (%). EAE, 1999-2008 (urteko batez bestekoak), 2009 (1. eta 2. hiruhilekoak)



Iturria: Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkesta, Eustat.

Enplegu-tasei dagokienez, 16 eta 29 urte bitarteko pertsona guztien ia erdiek (% 47,2) lanpostua dute 2009ko bigarren sei hilekoan. Gazteen enplegu-mailarik altuenak 2006an lortu ziren baina 2008tik aurrera gazteen enplegu-tasek beherakada nabarmena jasan dute. Azpimarratzekoa da enpleguen galera gizon gazteen artean.

Gazteen jarduera-tasa nabarmen jaitsi da azken hamar urteetan

8. grafikoa

16 eta 29 urte bitarteko gazteen jarduera-tasaren bilakaera, sexuaren arabera (%). EAE, 1999-2008 (urteko batez bestekoak), 2009 (1. eta 2. hiruhilekoak)



Iturria: Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkesta, Eustat.

3.3. Langabezia-tasa bikoiztu egin da urtebetean, eta biztanleria osoaren langabezia-tasa baino askoz ere handiagoa da oraindik ere


Nolanahi ere, gazteen lan-egoerari buruz nabarmendu beharreko lehen-dabiziko datua hau da: lan-merkatuak oso azkar egin du okerrera eta langabezia-tasa izugarri hazi da; izan ere, 2008. urtean % 7,3koa zen eta 2009. urteko bigarren hiruhilekoan, % 16,1ekoa. Horrez gain, merezi du adieraztea langabeziaren bilakaera negatiboagoa izan dela gazteen artean biztanleria osoan baino, eta gaur egun gazteen langabezia-tasa bi aldiz handiagoa dela biztanleria osoarena baino (% 7,8).

Generoaren ikuspegitik eta gazteen kolektiboari dagokionez, gaur egun, langabeziak gizonen gehiago eragiten die emakumeen baino. Biztanleria aktiboaren baitan, eta langabezia duden pertsonen proportzioari erreparatuta, gizonen proportzioa handiagoa da (% 18,2) emakumeena baino (% 13,7). Horrek agerian uzten du joera aldatu egin dela; izan ere, egungo krisi ekonomikoaren aurretik emakume gazteen langabezia-tasak handiagoak izan dira gizon gazteenak baino.

2008. urteaz geroztik, gazteen lan-egoerak okerrera egin du oso azkar, eta langabezia % 7,3tik % 16,1era igo da

9. grafikoa


**Biztanleria osoaren langabezia-tasa eta 16 eta 29 urte bitarteko gazteena (%).
EAE, 1999-2008 (urteko batez bestekoak), 2009 (1. eta 2. hiruhilekoak)**



Iturria: Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkesta, Eustat.

10. grafikoa

**16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa, sexuaren arabera (%).
EAE, 1999-2008 (urteko batez bestekoak), 2009 (1. eta 2. hiruhilekoak)***



* 2009. urteko 1. eta 2. hiruhilekoari dagozkien emakume gazteen langabezia-tasei buruzko datuak zuhurtziaz irakurri behar dira, lagin-akats handiak dituztelako.

Iturria: Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkesta, Eustat.

Gaur egun, gazteen kolektiboa osorik hartuta, langabeziak gizonei gehiago eragiten die emakumei baino


25 urte baino gutxiago dituztenen langabezia-tasa biztanleria osoarenaren halako hiru da

2008. urtean, lan-esperientzia duten gazte guztien % 35,0k ez du inoiz izan urtebete baino iraupen handiagoko lan ordaindurik

Gazteen artean, lanik eza handiagoa da adin-talde gazteenaren artean —16 eta 24 urte bitartekoen artean—. Gazteen adin-tarte horretan, langabezia-tasa % 20,5ekoa da; biztanleria osoan, berriz, % 7,8koa, eta gazte guztien artean, % 16,1ekoa. Gazteen talde horren barruan, halaber, generoaren arabera desberdintasunak handi samarrak dira. Izan ere, 16 eta 24 urte bitarteko gizon gazteen langabezia-tasa % 27,1ekoa da, eta emakume gazteena, ordea, % 12,3koa.

11. grafikoa

16 eta 24 urte bitarteko gazteen eta biztanleria osoaren langabezia-tasak, sexuaren arabera (%). EAE, 2009 (2. hiruhilekoa)



Iturria: Biztanleria Jarduera Arabera Sailkatzeko Inkesta, Eustat.

3.4. Lan-ezegonkortasuna eta kontratuen behin-behinekotasuna oso handiak dira oraindik ere

Gazteen lan-egoera nolakoa den adierazten duen beste ezaugarrietako bat enpleguaren ezegonkortasuna da. Izan ere, lan-esperientzia duten gazte guztien % 35,0k ez du inoiz izan urtebete baino iraupen handiagoko lanik. Horrez gain, lanean ari diren gazte guztien erdiek urtebete baino denbora gutxiago daramate unean duten lanpostuan.

2. taula

Lan-esperientzia duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteek bizitzan urtebetetik gorako iraupena izan duten lan ordainduen kopuruaren banaketa (%). EAE, 2004 eta 2008

	2004	2008
Bat ere ez	40,6	34,7
Bat	34,7	37,9
Bi	14,5	15,3
Hiru edo gehiago	37,9	12,1

Iturria: Geuk egina, *Euskadiko gazteak 2004 eta Euskadiko gazteak 2008* azterlanetako datuak abiapuntu hartuta, Gazteen Euskal Behatokia.

Euskadiko gazteak 2008 azterketan jasotako datuek agerian uzten dutenez, lanpostu berean denbora luzea (urtebete baino gehiago) daramaten gazteen ehunekoak gora egin du zertxobait epe laburrean. Hala ere, epe luzeagoari erreparatuz gero, lanpostu berean oso denbora gutxi daramaten gazteen ehunekoak gora egin du: 2000. eta 2008. urteen artean, uneko lanpostuan urtebete baino gutxiago daramaten langile gazteen ehunekoa % 40,0tik % 50,0ra igo da.

3. taula

Lan-esperientzia duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen azken enpleguaren iraupenaren bilakaera (%). EAE, 2000, 2004 eta 2008

	2000	2004	2008
Urtebete baino gutxiago	40	55	50
Urtebete eta hiru urte bitartean	36	27	32
Hiru urte baino gehiago	24	16	16
Ed/Ee	0	2	2

Iturria: *Euskadiko gazteak 2004 eta Euskadiko gazteak 2008*, Gazteen Euskal Behatokia.

Hari beretik, behin-behinekotasuna da gazteen kontratuen ezaugarria. 2008. urtean, lanean ari ziren gazteen erdiek aldi baterako kontratua zuten, eta % 32,0k, berriz, kontratu mugagabea zuen. Horrez gain, gazteen % 9,0 lan-kontraturik gabe ari zen lanean: merezi du agerian uztea lan-kontraturik gabe lanean aritzea, emakumeen kolektiboaren ezaugarria dela. Izan ere, kontraturik gabe lan egiten duten pertsonen ehunekoari erreparatuz gero, emakumeena (% 12,0) gizonena baino bi aldiz handiagoa da (% 6,0).


2008. urtean, lanean ari ziren gazteen erdiek (% 51,0) aldi baterako kontratua zuten, eta % 32,0k, berriz, kontratu mugagabea zuen

Kontraturik gabe lan egiten duten emakume gazteen ehunekoak gizon gazteena bikoiztu egiten du

Gazteen ia erdiek (% 48,0) adierazi dute lanez aldatuko liratekeela, ahal izanez gero, eta % 45,0k esan du bila zebilen lana duela

12. grafikoa

Lan-erperientzia duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteek azken enpleguan izan duten kontratu-motaren banaketa, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%). EAE, 2008



Iturria: Euskadiko gazteak 2008, Gazteen Euskal Behatokia.

Hala ere, nabarmentzeko modukoa da, halaber, gazteen enpleguaren egonkortasun-indizea —hau da, kontratu mugagabeen ehunekoak gazteei egindako kontratu guztiekiko— ez dela askorik aldatu azken urteotan. Enpleguaren kalitateari dagokionez, merezi du datu hauek ere agerian uztea:

- Lan-istripuren bat izan duten pertsona guztien ia erdiak gazteak dira; baina, hala ere, istripuren bat izan duten pertsona guztiekiko proportzioa murriztu egin da urteen joanean.
- Gazteen % 48,0k adierazi du lanez aldatuko litzatekeela ahal izanez gero, eta % 45,0k esan du bila zebilen lana duela. Gazteek lanarekiko duten satisfazio-maila eta lanak dituen baldintzak erabat lotuta daude. Horrenbestez, gogobetetasun-maila handiagoa dutela adierazi dute enplegu berean hiru urte baino gehiago daramatenek, beren burua autonomotzat hartzen dutenek eta kontratu mugagabea izan eta lanaldi osoa dutenek.

Lehendabiziko enplegua lortzeko moduei dagokienez, gehienek adierazi dute haiek berek zuzenean (lan-esperientzia duten gazteen % 41,4k) eta senideen, lagunen edota ezagunen bidez (% 35,5ek) aurkitu dutela. Enplegu-zerbitzu publikoak dira, aitzitik, gazteei lehendabiziko enplegua lortzen gutxien lagundu dietenak. 2004. urteko datuekin alderatuta, lehendabiziko enplegua zuzenean aurkitu duten gazteen kopuruak gora egin du zertxobait.

3.5. Familia da oraindik ere diru-iturri nagusia

Gazteek bizi duten egoera ekonomikoari eta duten erosteko ahalmenari dagokionez, gazteen % 43,7 jatorrizko familiaren diru-sarreretatik bizi da batik bat. Gazteen % 21,6k soilik adierazi du bere diru-sarreretatik bizi dela, eta, horietatik, erdiek baino gehiagok (% 58,1ek) esan dute jatorrizko familiarekin bizitzen jarraitzen dutela; hortaz, horiek ezin dira ekonomikoki beregaintzat hartu.

4. taula

15 eta 29 urte bitarteko gazteen diru-sarreren jatorriaren banaketa, adin-taldean arabera (%). EAE, 2008

	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Guztira
Nire familiaren diru-sarreretatik bizi naiz	88,0	40,6	10,4	43,7
Nire diru-sarreretatik bizi naiz	2,9	20,5	38,4	21,6
Bikotekidearen diru-sarreretatik bizi naiz	0,0	1,5	5,6	2,4
Nire eta familiaren diru-sarreretatik erdi bana bizi naiz	8,2	30,3	25,8	22,7
Nire eta bikotekidearen diru-sarreretatik erdi bana bizi naiz	0,2	5,3	18,2	8,2
Beste egoeraren bat	0,2	1,0	0,6	0,7
Ed/Ee	0,2	1,0	0,6	0,6

Iturria: Euskadiko gazteak 2008, Gazteen Euskal Behatokia.

Ordaindutako enplegua izateak ez du, bestalde, beregaintasun ekonomikoa ziurtatzen beti. Enplegua duten gazte gehienek jatorrizko familiarekiko beregaintasun ekonomikoa duten arren —% 55,3 dira beren diru-sarreretatik soil-soilik bizi direnak eta bikotekidearen diru-sarreretatik erdi bana bizi direnak batuta—, lan egiten duten gazteen % 42,1ek du jatorrizko familiarekiko mendetasun ekonomikoa.

Gazteen kolektiboaren % 43,7 jatorrizko familiaren diru-sarreretatik bizi da batik bat; % 21,6 bere diru-sarreretatik bizi da

Lan egiten duten gazteen % 42,1ek du jatorrizko familiarekiko mendetasun ekonomikoa

25 eta 29 urte bitartekoen erdiek baino gehiagok (% 56,5) hilean 900 euro baino gutxiago dute eskuragarri

Pobrezia-egoerak oso ugariak dira 25 urte baino gazteagoko pertsonak familiaburu diren familietan: halakoetan, pobrezia-tasa % 47,9koa da, eta biztanleria osoan, berriz, % 4,1ekoa

3.6. Eskura diru gutxi izatea eta pobrezia-maila handiak edukitzea familiaren laguntzaren bidez konpentsatzen da askotan

Diru-sarrera nagusia alde batera utzita, nabarmena dirudi EAEko gazteek nahiko diru gutxi dutela eskuragarri, bai eta lanpostua aurkitzea lortu dutenek ere: gazteen ia erdiek hilean 300 euro baino gutxiago izaten dute eskuragarri, eta % 21,7k soilik du 900 euro baino gehiagoko diru-sarrera. Adin-tarte zaharrenean ere, 25 eta 29 urte bitartekoak, diru-kopuru hori baino gehiagoko diru-sarrera dutenen ehunekoa apenas da % 38,5ekoa. Enplegua duten gazteen artean ere % 44,0k soilik du 900 euro baino gehiago eskuragarri hilean.

5. taula

15 eta 29 urte bitarteko gazteen hileroko diru-sarrerak, adin-taldean arabera (%). EAE, 2008

	15-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
60 euro baino gutxiago	16,6	45,7	7,7	2,8
60 eta 300 euro bitarte	31,3	45,5	36,5	13,4
301 eta 600 euro bitarte	13,1	3,3	18,3	15,0
601 eta 900 euro bitarte	13,5	1,0	12,3	25,3
900 euro baino gehiago	21,7	1,7	21,7	38,5
Ed/Ee	3,8	2,9	3,4	5,0

Iturria: Euskadiko gazteak 2008, Gazteen Euskal Behatokia.

Eusko Jaurlaritzak lau urtean behin egiten duen Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestako datuek adierazten dutenez, pobrezia oso hedatuta dago familiaburuak 25 urte baino gutxiago dituen familietan. 2008. urtean, mantenu-pobreziaren tasa¹ batez bestekoa baino hamar aldiz handiagoa zen mota horretako familietan —% 47,9koa eta biztanleria osoan, berriz, % 4,1ekoa—; horrek esan nahi du gazte emantzipatzea eta pobrezia-arriskua erabat lotuta daudela. Bestalde, familiaburuak 25 urte baino gutxiago dituen familietan soil-soilik izan da pobrezia-tasen bilakaera negatiboa, 2004. urtearekiko; izan ere, urte hartan % 39,2koa zen.

¹ Mantenu-pobreziaren kontzeptuak epe laburrean beharrik oinarritzekoenei (elikadura-, etxebizitza-, jantzi- eta oinetako-gastuak, batez ere) aurre egiteko behar besteko baliabide ekonomikorik ez dutenen egoerari egiten dio erreferentzia.

Hurrengo taulan adierazten diren datuei erreparatuta, nabarmentzeko modukoa da, halaber, ongizate-gabeziako egoeran bizi diren gazteak familiaburu diren familietan ere pobrezia-egoerak oso hedatuta daudela: biztanleria osoa kontuan hartuta, ongizate-gabeziako egoeran bizi diren familia guztien herena bakarrik bizi dira pobrezia-egoeran, eta familiaburuak 25 urte baino gutxiago dituen familien artean, berriz, % 95,0 baino gehiago dira.

6. taula

Pobrezia-arriskuko egoerak eta ongizate-gabeziako egoerak, etxeko pertsona nagusiaren adinaren arabera (%). EAE, 2008

	Pobrezia	Ongizate-gabezia*
<25 urte	47,9	50,7
25-34 urte	9,0	16,1
35-44 urte	6,1	20,8
45-54 urte	2,6	9,4
55-64 urte	2,9	11,6
65 urte edo gehiago	2,3	14,5
Guztira	4,1	14,6

* Ongizate-gabeziako adierazleek beren baitan hartzen dute pobrezia-egoerako kolektiboa.

Iturria: Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, 2008. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.

Edonola ere, nabarmentzeko modukoa da pobrezia-egoerak —pertsonekin adinaren arabera neurtzen denean eta ez familiaburuaren adinaren arabera— 15 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren % 5,6ri, eta 25 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren % 4,2ri soilik eragiten diela. Pobrezia-tasak biztanleriaren beste adin-taldeetan baino handiagoak badira ere, ezin daiteke esan aldeak oso nabarmenak direnik; are gehiago, beste kolektibo batzuetan —haurren kolektiboan, esaterako—, pobrezia-tasak are handiagoak dira.

Gazteen artean pobrezia-tasak handiagoak ez izatearen arrazoia, zalantzarik gabe, familiek ematen duten laguntza da. Gazteen banakako diru-sarrerak soil-soilik kontuan hartuz gero, familia osatzen duten gainerako kideen diru-sarrerak kontuan hartu gabe, pobrezia jende gehiagori eragingo lioke: 15 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren % 47,6ri, eta 25 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren % 30,0ri. Gazte asko eta asko, horrenbestez, estalitako pobrezia-egoeran bizi da, eta horrek agerian uzten du beste pertsona batzuen laguntza izatea oso garrantzitsua dela, gehienetan familiarena izaten da —familia adierarik zabalenean hartuta—, pobrezia-arriskuak dituzten pertsonentzat; hau da, bizitza beregaina izateko adina diru-sarrera ez izateak eragindako pobrezia-arriskua bizi dutenentzat.

Nolanahi ere, pobrezia-egoerak 15 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren % 5,6ri soilik eragiten dio, eta 25 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren % 4,2ri

Gazteen banakako diru-sarrerak soil-soilik kontuan hartuz gero, pobrezia-egoerak 15 eta 24 urte bitarteko gazteen % 47,6ri eragingo lioke, eta 25 eta 34 urte bitarteko gazteen % 30,0ri

4

Etxebizitza eskuratzea


15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik ia zortzi (% 78,5) jatorrizko familiarekin bizi dira gaur egun

4.1. Emantzipazio-tasek gora egin badute ere, gehienek jatorrizko familiarekin bizitzen jarraitzen dute

Euskadiko gazteak 2008 azterketaren arabera, EAEko hamar gaztetik ia zortzi (% 78,5) jatorrizko familiarekin bizi dira gaur egun. Emantzipazio-tasa % 19,1ekoa da 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean, eta % 40,8koa 25 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean. Emakumeei dagokienez, emantzipazio-tasa nabarmen handiagoa da (% 22,0) gizonena baino (% 16,3).

13. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketaren bilakaera, ohiko etxebizitzaren arabera (%). EAE, 2004 eta 2008



Iturria: Geuk egin, *Euskadiko gazteak 2004* eta *Euskadiko gazteak 2008* azterlanetako datuak abiapuntu hartuta, Gazteen Euskal Behatokia.

Bilakaera kontuan hartuta eta *Observatorio joven de vivienda en España (OBJOVI)* buletinean emandako datuak oinarri hartuta (18 eta 35 urte bitarteko biztanleak hartzen ditu kontuan), EAEn emantzipatutako gazteen ehunekoak gora egin du azken sei urteetan, % 28,9tik % 43,6ra, hain zuzen. Euskadiko Gazteak azterlan-serieak biltzen dituen datuak antzekoak dira, emantzipazio-tasen igoerari dagokionez. Hala ere, kontuan hartzen dituzten adin-taldeak desberdinak direnez, emantzipazio-tasak txikiagoak dira. Txosten horrek jasotzen duenez, beren jatorrizko familiarena ez den beste etxebizitza batean bizi diren gazteen proportzioak % 5,0 egin du gora; 2004. urtean % 13,9 ziren, eta 2008. urtean, berriz, % 19,1. Aldi berean, jatorrizko familiarekin bizi direnen ehunekoak behera egin du (% 83,6 ziren 2004an eta % 78,5, berriz, 2008an).

Bestalde, gazte gehienak (% 64,4), ahal izanez gero, emantzipatu egingo lirateke eta beren familiarena ez den beste etxeren batean biziko lirateke; hala ere, ehuneko horrek behera egin du 2004. urteaz geroztik (urte hartan % 70,5 ziren). Beren familiarekin bizitzen jarraitu nahi duten gazteen ehunekoak, berriz, gora egin du (% 21,2tik % 28,9ra).

4.2. Etxebizitzaren prezioa da oraindik ere emantzipatzeko zailtasun nagusia

Etxebizitza eskuratzeko gazteek duten zailtasun nagusia oraindik ere haien prezio garestia da. Gaur egun, eta duela zortzi urte ere bai, Euskadiko gazte gehienek esaten dute etxebizitzek duten prezio garestia dela emantzipatzeko oztopo nagusia.

Dena dela, gero eta gazte gehiagok adierazten dute beren jatorrizko familiarekin bizitzea oso eroso dela eta hori ere badela emantzipatzeko oztopo edo ez emantzipatzeko arrazoia. Hurrengo orrialdeko 14. grafikoan ikus daitekeenez, hala pentsatzen dutenen ehunekoak gora egin du 2004. urtetik 2008. urtera bitartean (% 36,1etik % 59,2ra). Aldi berean, bizitza beregaina egiten hasteko norberaren diru-sarrerara oztopotzat hartzen duten gazteen kopuruak behera egin du. Azken lau urteetan % 14,1 egin du behera.

Emantzipatzeko gazteek berek izan ditzaketen arazoez gain, etxebizitzaren prezioa zailtasun objektiboa dela nabarmena dirudi. *Observatorio joven de vivienda en España* buletinak adierazitakoaren arabera, etxebizitza jabetzan eskuratzeko batez besteko kostuak % 100 gainditzen ditu 35 urte baino gutxiago dituzten pertsonen batez besteko diru-sarrerak (% 105,5). 2002. urteaz geroztik (% 78,3 zen urte hartan) etengabe hazi da ehuneko hori. Genero-desberdintasunen ikuspegitik, ordainsarien zenbatekoak txikiagoak direnez, emakume gazteentzat egoera negatiboagoa da adin bereko gizonentzat baino.


Azken sei urteetan, 35 urte baino gutxiago dituzten emantzipatutako gazteen ehunekoak gora egin du, % 28,9tik % 43,6ra

Gazteen kolektiboaren % 78,1ek etxebizitza eskuratzeko duen zailtasun nagusia etxebizitza garestia izatea da

Etxebizitza jabetzan eskuratzeko batez besteko kostuak 35 urte baino gutxiago dituzten pertsonen batez besteko diru-sarreraren % 100 gainditzen ditu (% 105,5)

14. grafikoa

Emantzipatzeko zailtasunen bilakaera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen iritziz (%). EAE, 2000, 2004 eta 2008*



* Emantzipatzeko zailtasun horietakoren bat izan dutela adierazi duten gazteen ehunekoa.

Iturria: Geuk egina, *Euskadiko gazteak 2000, Euskadiko gazteak 2004 eta Euskadiko gazteak 2008* azterlanetako datuak abiapuntu hartuta, Gazteen Euskal Behatokia.

15. grafikoa

Etxebizitza jabetzan eskuratzeko kostuaren bilakaera 35 urtera arteko gazte batentzat, sexuaren arabera (batez besteko diru-sarrerarekiko portzentajea). EAE, 2003-2008




Iturria: Observatorio joven de vivienda en España (OBJOVI), Espainiako Gazteriaren Kontseilua.

4.3. Behera egin du Etxebiden eskaera egin duten gazteen kopuruak, eta bere horretan jarraitzen du etxebizitza erostea alokairuan hartzea baino nahiago duten gazteen kopuruak

Etxebizitza eskuratzeko zailtasun gehiago badaude ere, eta prezioak 2008. urtera arte etengabe gora egin badu ere, Etxebidek emandako datuek erakusten dutenez, 2003. eta 2009. urteen artean etxebizitza-eskaeren kopuruak behera egin du 35 urte baino gutxiago dituzten gazteen artean; hain zuzen, 66.296 50.130 (horrek esan nahi du eskaera-kopurua % 24,4 gutxitu dela). Etxebizitza-eskaera egin duten 35 urte baino gutxiagoko pertsonen ehunekoa % 70,4tik % 50,6ra jaitsi da epealdi horretan, eskaera egin duten pertsona guztiekiko. Etxebiden egindako etxebizitza-eskaeren tasa, hala ere, 2009. urtean % 14,7koa da 18 eta 34 urte bitarteko biztanlerian. Bestalde, emantzipatuta dauden gazteek nahiago dute etxebizitza jabetzan izan alokairuan baino, etxebizitza eskuratzera-koan. Familiaren etxetik kanpo bizi diren 30 urte baino gutxiagoko pertsonen artean, erdiek baino gehiagok (% 64,3) etxebizitza erostea erabaki dute, eta gazte guztien laurdenek hautatu dute alokairuan hartzea. Etxebizitza jabetzan duten gehienek oraindik ordaindu gabe dute.

16. grafikoa

Jatorrizko etxebizitzatik kanpo bizi diren 30 urtetik beherako gazteen banaketa, etxebizitza edukitzeko erregimenaren arabera (%). EAE, 2006



Iturria: Geuk egina, Eustat erakundearen Inkesta Demografikoa 2006 txosteneko datuak oinarri hartuta.

Etxebiden etxebizitza-eskaera egiten duten pertsona guztietatik, % 50,6 dira 35 urtetik beherakoak, 2003. urtean baino % 19,8 gutxiago

Emantzipatutako pertsona gazteen erdiek baino gehiagok etxebizitza jabetzan eskuratzeko hautatu dute

Hezkuntza eta lanerako prestakuntza


Gazteek Euskadiko hezkuntza-sistemari buruz duten irudiak hobera egin du azken urteen joanean

5.1. Hezkuntza-sistemari buruzko balorazioak hobera egin du, bai eta Lanbide Heziketari buruzko balorazioak ere

Azken urteen joanean, gazteek Euskadiko hezkuntza-sistemari buruz duten irudiak hobera egin du: gaur egun, gazte guztien erdiek baino gehiagok (% 58,0) adierazi dute Euskadin hezkuntza «oso ona edo nahiko ona» dela; gazteen % 6,0k, berriz, balorazio negatiboa egin du. 2000. urtean, hezkuntza-sistemaz irizti ona zutenen ehunekoa % 44,0koa zen.

17. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteek Euskadiko hezkuntza-sistemaz duten balorazioaren bilakaera (%). EAE, 2000, 2004 eta 2008



Iturria: Euskadiko gazteak 2008, Gazteen Euskal Behatokia.

Lanbide Heziketa ere hobeto ikusten dute azken urteotan: 2007. urtean, gazteen % 66,0k adierazi zuen kalitate onekoa zela. Hala ere, % 79,0k uste badu ere gazte batek errazago aurkituko duela lana LH ikasita unibertsitateko karrera bat ikasita baino, % 50,0k nahiago luke seme-alabak unibertsitateko ikasketaren bat egitea, eta % 37,0k, berriz, LHko ikasketak egitea.

5.2. Eskolatzetasek eta prestakuntza-mailak bere horretan jarraitzen dute

EAEko gazteen eskolatzeari dagokionez, eskolatzetasek ez dira askorik aldatu urteen joanean: ikasten duten gazteen ehunekoa oso antzekoa da, eta emakumeak dira oraindik ere eskolatzetasa handienak dituztenak adin-tarte guztietan. Normala denez, eskolatzetasek murriztu egiten dira adinak gora egiten duen neurrian: 2007/2008 ikasturtean, 16 urteko hamar gaztetik bederatzia (% 90,2) ikasten ari ziren, eta 24 urteko gazteen ehunekoa, berriz, % 22,9koa zen.

7. taula

Eskolatzetaseen bilakaera, adinaren eta aldiaren arabera (%). EAE, 2000/2001 ikasturtea – 2007/2008 ikasturtea

	2000/ 2001	2001/ 2002	2002/ 2003	2003/ 2004	2004/ 2005	2005/ 2006	2006/ 2007	2007/ 2008
16 urte	91,8	90,6	89,2	90,2	89,2	88,3	89,7	90,2
17 urte	86,1	85,6	84,4	84,1	84,3	84,4	83,9	84,0
18 urte	75,3	75,2	77,2	76,3	75,2	75,6	77,7	76,7
19 urte	71,1	69,1	71,2	72,4	70,5	71,0	71,7	70,4
20 urte	59,9	58,1	58,7	63,3	63,3	63,1	63,5	61,7
21 urte	50,6	49,8	51,7	49,7	52,9	52,2	51,8	50,2
22 urte	40,2	40,9	40,9	41,6	40,8	41,4	41,1	40,7
23 urte	30,7	31,1	32,6	31,1	32,2	30,9	31,5	31,9
24 urte	21,0	21,8	22,6	22,7	22,8	23,1	21,9	22,9

Iturria: Unibertsitateari buruzko Estatistika eta Eskola-jarduerari buruzko Estatistika, Eustat.

Eskolatzetasek ez dira askorik aldatu azken zortzi urteetan

2008. urtean hamar gaztetik zortzik (% 80,8) amaitu zituzten Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko ikasketak; ehuneko hori Espainiako batez bestekoa baino askoz ere handiagoa da

Ez da askorik aldatu, halaber, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketak amaitzen dituzten gazteen ehunekoa (Batxilergoa; Erdi Mailako LHko heziketa-zikloak eta Arte plastikoak eta Diseinua; Gizarte Bermeko programak; eta Erregimen Bereziko Kirol Irakaskuntzak, erdi-mailakoak). Aurreko urteetan gertatutakoaren oso antzera, 2008. urtean hamar gaztetik zortzik (% 80,8) amaitu zituzten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketak. Europar Batasunak 2010. urterako ezarritako helburuetako bat da 22 urteko pertsonen % 85,0k amaitzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketak, gutxienez. EAEk ez du oraingoz helburu hori betetzen, hamar gaztetik zortzik soilik (% 80,8) lortu baitute hezkuntza-maila hori. Baina datu horiek sexuaren arabera aztertuz gero, emakumeek betetzen dute Europar Batasunak ezarritako helburua, % 86,6 graduatu baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. etapan, eta hori bera egin duten gizonen ehunekoa, berriz, % 75,3koa da.

Nahiz eta Europar Batasunak 2010. urterako proposatutako helburua lortu ez, nabarmentzeko modukoak dira Euskadiko gazteek lortutako emaitzak adierazle horretan. Gazteen % 80,8k amaitu ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketak Euskadin, eta Espainian % 61,1ek. Euskadiko datuak hobekia dira Espainiakoak baino, gizonei zein emakumei buruzkoak: Espainian gizonen batez bestekoa % 55,1ekoa da eta emakumeena, % 67,3koa.

18. grafikoa

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketetan graduatu diren 20 eta 24 urte bitarteko biztanle gazteen bilakaera (INSN, 3A, 3B eta 3C), sexuaren arabera (%). EAE, 2000-2007



Iturria: Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Euskal Institutua; Euskal Herriko hezkuntza-adierazleen sistema; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Europar Batasunak 2010erako ezarritako beste helburuetako bat da % 10,0ra murriztea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu zein amaitu ez, eta ikasteari uzten dioten 18 eta 24 urte bitarteko pertsonen ehunekoak, hau da, garaiaz aurreko eskola-uztea izenez ezagutzen dena. 2007. urtean emakumeek ia lortu zuten helburu hori (% 11,0); baina gizonen artean garaiaz aurreko eskola-uzteak % 19,6 egiten du. Bi sexuen ehunekoak % 15,4 egiten du.

Datu horiei dagokienez ere, EAEko datuak hobeak dira Espainiakoak baino. Espainiako gazteen artean garaiaz aurreko eskola-uzteen ehunekoak % 31,0koa zen 2007. urtean. Datu hori sexuaren arabera bereiziz gero, hauek dira ehunekoak: gizonen artean % 36,1 eta emakumeen artean % 25,6.

19. grafikoa

Ikasketak goiz utzi dituzten 18 eta 24 urte bitarteko gazteen bilakaera, sexuaren arabera (%). EAE, 2001-2007



Iturria: Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Euskal Institutua. Euskal Herriko hezkuntza-adierazleen sistema; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Europar Batasunak 2010erako ezarritako hirugarren helburua da, garapen ekonomikoa eta ikerketa zientifikoa sustatze aldera, % 15,0 haztea zientzian, matematikan eta teknologian graduatutako pertsonen tasa (1.000 biztanleko), eta, horrez gain, generoen arteko desberdintasuna murriztea. Euskadiko tasa da altuena (% 27,8) Europar Batasuneko herrialde guztien artean, eta Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketak garrantzi handia duelako izan daiteke. Gizonen tasa % 38,1ekoa da, emakumeena baino askoz ere handiagoa, % 16,8koa baita.

DBHn graduatu eta ikasten jarraitzen ez duten 18 eta 24 urte bitarteko gizonen ehunekoak % 19,6koa da, eta emakumeena, % 11,0koa. EBren helburua, 2010erako, ehuneko hori % 10etik beherakoa izatea da

Zientzian, matematikan eta teknologian graduatutakoen tasa mila biztanleko (27,8) handiena da Europar Batasuneko herrialdeen artean

Lanbide Heziketa amaitzen duten pertsona guztiak kontuan hartuta, hamarretik ia zazpi (% 68,0) lanpostua lortzen dute graduatu eta urtebetara, nahiz eta kontratu gehienak aldi baterakoak izan

5.3. Laneratze-maila hobea da Lanbide Heziketako, unibertsitateko eta Lanerako Prestakuntzako ikasketak amaitu ondoren

Lan-merkatuan sartzeari dagokionez, 2007. urtean, graduatu eta urtebetere buruan, hamarretik ia zazpi (% 68,0) lanean ari ziren Lanbide Heziketa ikasita. Datu hori 5 puntu hobea da 2006. urtean lortutakoaren aldean, 2005eko promozioekoei dagokienez. Hobekuntza, batez ere, kontratu finko/mugagabeen kopuruan izan da, % 9,8 izatetik % 13,4 izatera igaro baita. Nolanahi ere, lanean ari ziren pertsona gehienak aldi baterako lanetan ari ziren (% 41,3). Gizonen enplegu-tasa handiagoa da aztertu ditugun promozio guztietan, nahiz eta azken urteotan aldeak gero eta txikiagoak diren.

20. grafikoa

Lanbide Heziketako tituludunen enplegu-tasaren bilakaera graduatu eta urtebetere buruan, sexuaren arabera (%). EAE, 2000-2007*




* Parentesi artean adierazten diren urteek graduazio-urteari egiten diote erreferentzia.

Iturria: Laneratzea. Lanbide Heziketa (zenbait urte), Lanbide.

Bestalde, unibertsitateko ikasleen laneratzeak okerrera egin du 2008. urtean, aurreko urtearekiko. Datu horiek Euskal Herriko Unibertsitateak egindako azterketa batetik atera dira eta graduazioa lortu eta hiru urtera neurtzen dira. Horiek, hain zuzen, ikasturte bakoitzean graduatutako biztanleriaren % 68,0ri dagozkie. 2008. urtean, % 87,8 lanean ari da eta % 7,6 langabezian dago. 2005eko promozioko gizonen artean % 88,2 ari da lanean; ehuneko hori emakumeena baino zertxobait handiagoa da (% 87,5).

21. grafikoa

Unibertsitarioen lan-egoera, graduatu eta hiru urtera (%). 2001-2008*

* Parentesi artean adierazten diren urteek graduazio-urteari egiten diote erreferentzia.

Iturria: Unibertsitarioen laneratzea (2008), Lanbide.

Lanerako Prestakuntzako ikastaroetan parte hartu duten pertsonen laneratze-indizearen bilakaerak erakusten duenez, goranzko joera oso nabarmena da, 20,5 puntu igo baita azken hamar urteetan.

2008. urtean, unibertsitatean graduatu eta hiru urtera, % 87,8 lanean ari da

6

Euskararen jakite-maila eta erabilera


2006an EAEko gazteen erdiak baino gehiago (% 57,5) elebidunak dira, eta duela hamar urte, berriz, % 25,0

6.1. Gazte elebidunen kopuruak gora egin du azken urteotan

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak prestatutako Euskal Herriko III. eta IV. Inkesta Soziolinguistikoetako datuen arabera —*Euskadiko gazteak 2008* argitalpenean aipatuak—, 16 eta 24 urte bitarteko gazte elebidunen kopurua haziz joan da azken urteetan. Horrenbestez, 2006. urtean EAEko gazte guztien erdia baino gehiago (% 57,5) elebiduna da, eta duela hamar urte bakarrik lau gaztetik batek hitz egiten zituen Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak. Halaber, gazteen kopuru handi batek (% 24,9) ez du bere burua elebiduntzat hartzen, baina euskara «ondo edo oso ondo» ulertzen duela adierazten du. Azken batean, datuek agerian uzten dute Euskadiko bost gaztetik lauk euskara ondo dakitela.

Gazte elebidunen kopurua lurraldeka bereiziz gero, aldeak nabarmenak dira. Gipuzkoa da, alde handiarekin, euskara eta gaztelania hitz egiten duen gazte gehien duen lurraldea.

22. grafikoa

16 eta 24 urte bitarteko gazte elebidunen kopuruaren banaketa, lurralde historikoaren arabera (%). EAE, 2006


Iturria: Euskadiko gazteak 2008, Gazteen Euskal Behatokia.

Jarraian erantsi dugun grafikoa ikus daitekeenez, euskara dakitenen kopuruak gora egin du urteen joanean. Gaitasun horiek, batez ere, adin-talde gazteenetan egin dute hobera; dena dela, azken urteotan, hauteman ahal izan dugu, halaber, nolabait ere moteldu egin dela euskara dakiten gazteen ehunekoaren hazkundera.

Gazte elebidunen kopurua lurraldeka bereiziz gero, aldeak nabarmenak dira, eta Gipuzkoa da hiru lurraldeen artean nagusi

23. grafikoa

**Euskararen ezagutzaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (%).
EAE, 2000, 2004 eta 2008**



Iturria: Euskadiko gazteak 2008, Gazteen Euskal Behatokia.

Horrez gain, nabarmentzeko modukoa da gazteek euskararekiko duten al-deko jarrera. 30 urte baino gutxiago dituzten Euskadiko gazte gehienek (% 95,0) esan dute seme-alabaren bat edukiz gero euskara jakitea nahiko luketela.


6.2. Euskara dakiten pertsonen erdiek batez ere gaztelaniaz hitz egiten dute lagunekin eta familiarekin

Familia barruan, euskara dakiten gazteen % 62,0k gaztelaniaz hitz egiten du, edo gaztelaniaz euskaraz baino gehiago hitz egiten du. Ehuneko hori txikiagoa da lagunekin hitz egiterakoan, hain zuzen ere, % 53,0 da.

2004. eta 2008. urteen artean, eta euskara dakitenen artean, familia arteko harremanetan bi hizkuntzetan hitz egiten duten gazteen ehunekoak gora egin du zertxobait. Bizitzaren bi alderdi horietan nagusiki euskaraz hitz egiten dutenen ehunekoak, berriz, lau puntu gutxitu da.

24. grafikoa


Euskara etxean erabiltzearen bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (%). EAE, 2004 eta 2008



Iturria: Euskadiko gazteak 2008, Gazteen Euskal Behatokia.

25. grafikoa

Euskara lagunekin erabiltzearen bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (%). EAE, 2004 eta 2008



Iturria: Euskadiko gazteak 2008, Gazteen Euskal Behatokia.

Etxean eta lagunekin komunikatzeko batik bat euskara erabiltzeak behera egin du 2004tik 2008ra

Osasuna eta osasun-arriskuak


Gizarte-klase altuko gazteek beren osasunari buruzko balorazio positiboagoa egiten dute gizarte-klase ez hain altukoek baino

7.1. Euskadiko gazteek osasun ona dutela eta forma fisiko onean daudela irizten diote

Norberaren osasunari buruzko balorazio positiboa egiten dute gazteek. Hamar gaztetik ia bederatzik (% 86,9) osasun ona edo bikaina dutela irizten diote, eta hamarretik bostek (% 55,0) uste dute forma fisiko ona eta bikaina artekoa dutela.

26. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteek beren osasunari buruz duten iritzia (%).
EAE, 2006




Iturria: Osasuna eta gazteak. Euskadiko gazteen ikusmoldeak osasunari buruz, Gazteen Euskal Behatokia.

Gai horretan ez dago sexuaren araberako aldaketa nabarmenik, baina bai, ordea, gazteen gizarte-klase sozioekonomikoaren arabera. Helduen artean gertatzen den bezala, gizarte-klase altuko gazteek beren osasunari buruzko balorazio positiboagoa egiten dute gizarte-klase ez hain altukoek baino.

27. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteek beren osasunari buruz duten iritzia, gizarte-klasearen arabera (%). EAE, 2006



Iturria: Geuk egina, *Osasuna eta gazteak: Euskadiko gazteen ikusmoldeak osasunari buruz azterlaneko datuak* abiapuntu hartuta, Gazteen Euskal Behatokia.

7.2. Heriotza-tasa erdira murriztu da, eta zirkulazio-istripuek eragiten dute oraindik ere heriotza gehien


Heriotza-tasa ia erdira murriztu da EAEko gazteen artean azken hamar urteetan. Izan ere, 1996. urtean mila biztanleko 0,68 lagun hil ziren, eta 2006. urtean, berriz, 0,36. Biztanleria osoari dagokionez, ordea, heriotza-tasak gora egin du, gutxi bada ere.

Heriotza-tasa ia erdira murriztu da EAEko gazteen artean azken hamar urteetan

Gizonen heriotza-tasa ia lau aldiz handiagoa da emakumeena baino

28. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteen eta biztanleria osoaren heriotza-tasen bilakaera (1.000 biztanleko). EAE, 1996 eta 2006



Iturria: Gazteen adierazleak 2009, Gazteen Euskal Behatokia.

Gizon gazteen heriotza-tasa (0,56 hildako mila biztanleko) nabarmen handiagoa da emakumeena baino (0,16). Gizonen heriotza-tasak handiagoak dira edozein dela arrazoia, eta, batez ere, zirkulazio-istripuak, suizidioak eta nork bere buruari eragindako kalteak direla-eta. Gizonen artean heriotza-tasak handiagoak zergatik diren adierazteko, ezinbestekoa da kontuan hartzea gizonen rol tradizionalarekin lotutako faktoreak. Hau da, bizitzeko moduak eta portaera-ereduak, osasunerako eta biziraupenerako arrisku-faktoreetarako aukera gehiago izatea eragiten dutenak. Beraz, esate baterako, gizon gazteen % 40,0k gidatu du behin baino gehiagotan alkoholaren eraginpean, eta emakumeei dagokienez, berriz, % 16,0 dira. Horrenbestez, nabarmena da emakumeak, oro har, zuhurragoak direla bide-segurtasunaren gai horretan.

Nahiz eta gero eta hildako gutxiago eragin, ibilgailu motordunekin izandako zirkulazio-istripuak dira oraindik ere, alde handiarekin, lehen heriotza-kausa gazteen artean: gazteen artean izandako lau heriotzatik ia bat arrazoi horrengatik gertatu da (% 24,3), eta biztanleria osoaren kasuan, berriz, % 0,8. Nabarmentzeko modukoa da, edonola ere, 2005. urteaz geroztik bereziki nabarmen murriztu dela zirkulazio-istripuen ondorioz hildako gazteen kopurua, 2007an eta 2008an kopuruak pixka bat gora egin badu ere. Horrez gain, merezi du bereziki adieraztea zirkulazio-istripuengatik hilkortasuna gizonen kontua dela nagusiki: zirkulazio-istripuz hildako gazteen % 86,0 gizonak dira.

29. grafikoa

Zirkulazio-istripuetan hildako (24 ordu) 15 eta 19 urte bitarteko gazteak, sexuaren arabera (zenbaki absolutuak). EAE, 2000-2008



Iturria: Geuk egina, Herrizaingo Sailaren Trafiko Zuzendaritzaren datuak abiapuntu hartuta.

7.3. Haurdunaldiaren borondatezko etenduren kopuruak gora egiten jarraitzen du EAEn


Haurdunaldiaren borondatezko etenduren (HBE) kopuruak eta tasak etengabe hazi dira azken urteotan. 2007. urtean 1.812 haurdunaldi eten ziren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean; horrek esan nahi du mila emakumeko 10,8koa dela tasa adin-tarte horretan. HBEen zenbatekoa adin-talde bakoitzeko biztanleriaren bolumenaren arabera haztatuz gero, 2007. urteko abortu-tasarik handiena 20 eta 24 urte bitarteko emakumeen artean izan zen (13,2 emakume, mila emakumeko), eta, txikiena, 15 eta 19 urte bitartekoen artean (8,3). Baina, halaber, azken adin-tarte horretan izan da azken bost urteotako gehikuntza erlatiborik handiena haurdunaldiaren borondatezko etenduren tasetan.

Motordun ibilgailuekin izandako zirkulazio-istripuak dira oraindik ere, alde handiarekin, lehen heriotza-kausa gazteen artean

Haurdunaldiaren borondatezko etenduren (HBE) kopuruak eta tasak etengabe hazi dira azken urteotan

30. grafikoa

Haurdunaldiaren borondatezko etenduren tasaren bilakaera adin-taldearen arabera (adin-talde bakoitzeko 1.000 emakumeko). EAE, 2002, 2004-2007



Iturria: Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduren Erregistroa, Osasun eta Kontsumo Saila.

Merezi du nabarmentzea haurdunaldia eten duten oso emakume gutxi joaten dela aurretiaz familia-plangintzako kontsultara: 2007. urtean 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 13,8 joan zen kontsultara, eta 20 eta 24 urte bitarteko % 21,0; beherakada orokorra izan da 2003. urteaz geroztik.

7.4. GIBen bidezko infekzioen detekzio-kopuruak gora egiten jarraitzen du, baina gutxitu egin da hiesaz kutsatutako kopurua

GIBen infekzio berrien tasak nabarmen egin du gora azken urteotan: 2008. urtean 42 kasu hauteman ziren, eta horrek esan nahi du infekzioen tasa 0,12koa dela 1.000 biztanleko; eta 2000. urtean, berriz, 0,06koa izan zen. Argitu behar da, nolahi ere, detektatutako infekzio-kasuek gora egin izanak ez duela esan nahi, nahitaez, GIBen benetako intzidentziak gora egin duenik gazteen artean; aitzitik, detekzio-probak egitea eskuragarriago edo errazagoa denez, litekeena da erregistratutako kasuen kopuruak gora egin izanaren arrazoia hori izatea.


GIBen infekzioen tasak gora egin du nabarmen azken urteotan, eta litekeena da proba diagnostiko gehiago egitearen ondorio izatea

Hala ere, eta beste jokabide arriskutsu eta osasun-arazo batzuetan gertatzen den bezala, gizonen artean handiagoak dira GIBen infekzio-tasak: 6 gizon kutsatuta 4 emakumeko. Batez ere sexu-harreman heterosexualen bidez kutsatu da birusa gazteen artean; are gehiago, emakumeei dagokienez, hori baita kasik kutsatzeko modu bakarra.

GIBen infekzioen kasuekin gertatu ez den bezala, EAEko gazteen artean hiesaz kutsatuta dauden kasu aitortuen kopuruak behera egin du etenik gabe azken urteotan. Hau da, hiesaz kutsatutako gazteen tasa 100.000 biztanleko 5,6koa zen 2000. urtean, eta 1,1koa, 2008. urtean. Biztanleria osoa kontuan hartuta, tasa 9,5etik 3,3ra jaitsi da —murrizketa txikiagoa, baina prebalentzia handiagoa, hortaz—, eta kasu honetan ezin dezakegu esan prebalentzia emakume gazteen artean txikiagoa denik adin bereko gizonen artean baino.

31. grafikoa

Biztanleria osoaren eta 15 eta 29 urte bitarteko gazteen hies-tasak, sexuaren arabera (100.000 biztanleko). EAE, 2000, 2004 eta 2008



Iturria: Geuk egina, Hiesa Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Planeko datuak abiapuntu hartuta, Osasun eta Kontsumo Saila.

Hies kasu aitortuen kopuruak behera egin du etenik gabe azken urteotan EAEko gazteen artean


Atzeratu egin da zertxobait substantzia psikoaktiboak kontsumitzen hasteko batez besteko adina

7.5. Jaitsi egin da zertxobait substantzia psikoaktiboak kontsumitzen hasteko adina

Substantziak kontsumitzen hasteko adina jaitsi egin da 2008. urtean 2004ko datuekiko, eta, gainera, ia substantzia guztiekin gertatu da. Esate baterako, alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adina 15,6 urte dira, eta estasiarena, 19,6 urte. Cannabisa kontsumitzen hasteko batez besteko adina 16,7 urte dira, eta tabakoarena 15,9 urte.

32. grafikoa

Substantzia psikoaktiboak kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen artean (%).
EAE, 2000, 2004 eta 2008



Iturria: Geuk egina, *Euskadi eta drogak 2008* txosteneko datuak abiapuntu hartuta, Drogamendekotasunen Euskal Behatokia, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.


7.6. Tabakoaren kontsumoak gora egin du gazte helduenen artean

Tabakoaren kontsumoari dagokionez, sei gaztetik lauk (% 43,5) erretzailerik ez direla esan dute. Erretzen ez dutenen ehunekoa 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean ia % 60,0koa da. Ehuneko hori, hala ere, % 29,8ra murrizten da 25 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean; adin-talde horretan tabakoaren kontsumo-tasak handiagoak dira biztanleria osoarenak baino. Adin-tarte guztietan handiagoa da gizon erretzaileen ehunekoa emakumeena baino.

Ohiko erretzaileen ehunekoa gutxitu egin da 15 eta 24 urte bitartekoan, baina hazi egin da 25 eta 29 urte bitartekoan, gizon gazteen artean, bereziki

33. grafikoa

Erretzen ez dutenak, ohiko erretzaileak, noizbehinka erretzen dutenak eta erretzaile ohiak 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, adin-taldean arabera, eta biztanleria osoan (%). EAE, 2008



Iturria: Geuk egina, *Euskadi eta drogak 2008* txosteneko datuak abiapuntu hartuta, Drogamendekotasunen Euskal Behatokia, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Bereziki kezkaugarria da egiaztatu izana tabakoaren ohiko kontsumoak gora egin duela 25 eta 29 urte bitarteko taldean azken lau urteetan. 2004. eta 2008. urteen artean, tabako-kontsumitzaile ohikoak diren adin-tarte horretako gazteen ehunekoa % 36,6tik % 45,6ra igo da, eta nabarmen igo da 25 eta 29 urte bitarteko gizon gazteen artean —kontsumo-tasak % 33,4tik % 50,6ra igo dira—.

2004. eta 2008. urteen artean nabarmen egin du behera alkoholaren kontsumoak gazteen artean


7.7. Alkoholaren gehiegizko kontsumoaren tasek eta askotan mozkortzen diren gazteen ehunekoak behera egin dute

Alkoholaren kontsumoari dagokionez, gazte gehienek (% 85,2) aste guztiko alkohol-kontsumoa zero arriskukoa edo arrisku gutxikoa da, astegunetako kontsumo-indizeak txikiak direlako, batez ere. Izan ere, Euskadi eta Drogak azterlan-seriean erabilitako sailkapenaren arabera, lanegunetan gehiegizko kontsumoa eta arriskuaren barruko kontsumoa txikiagoa da gazteen artean biztanleria osoan baino (% 0,6 gazteentzat eta % 2,0 biztanleria osoarentzat). Jaiegunetan egoera oso bestelakoa da eta arriskuaren barruko kontsumoak gazteen % 28,7ri eragiten dio, eta biztanleria osoari dagokionez, % 13,8ri.

Adierazteko modukoa da, nolana ere, 2004. eta 2008. urteen artean nabarmen egin duela behera alkoholaren asteburuetako kontsumoak gazteen artean —gehiiegizko kontsumoak eta arriskuaren barrukoak % 39,0tik % 28,7ra egin du behera—, eta litekeena da arlo horretan lan egiten duten erakundeek igorritako prebentziozko mezuak eta osasun-hezkuntzako mezuak barneratu dituztelako izatea. Bada beste adierazle interesgarri bat ere jakiteko zein den gazteen alkohol-kontsumoaren joera, eta, hain zuzen, hau da: azken urteko mozkorraldien kopurua. Adierazle horren bilakaera azken lau urteetan positiboa izan da gazteen artean. Behera egin du urtean 12 aldiz baino gehiagotan mozkortu diren gazteen ehunekoak, eta gora egin du inoiz mozkortu ez direnen ehunekoak.

34. grafikoa

Azken 12 hilabeteetako mozkorraldien maiztasunaren bilakaera 15 eta 34 urte bitarteko gazteen artean (%). EAE, 2004, 2006 eta 2008



Iturria: Euskadi eta drogak 2008. Drogamendekotasunen Euskal Behatokia, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.


7.8. Behera egin du legez kanpoko substantzia guztien kontsumoak, cannabisarenak salbu, bai eta drogen mendekotasunagatik tratamendua jasotzen duten gazteen kopuruak ere

Legez kanpoko drogen kontsumoari buruzko adierazleek behera egin dute substantzia guztietan 2004. urtearekiko, cannabisarenak izan ezik. Nahiz eta kontsumoaren prebalentziak behera egin 2004. eta 2008. urteen artean, kokainaren tasa 2000. urtean baino handiagoa da. Nabarmentzeko modukoa da aztertu ditugun droga ia guztietan gizonen kontsumo-tasak nabarmen handiagoak direla emakumeenak baino.

Behera egin du legez kanpoko droga guztien kontsumoak, cannabisarenak izan ezik; substantzia guztien kontsumo-tasak nabarmen handiagoak dira gizonen artean emakumeen artean baino

35. grafikoa

Azken hamabi hilabeteetako substantzia psikoaktiboen kontsumoaren prebalentziaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (%). EAE, 2000, 2004 eta 2008




Iturria: Geuk egina, *Euskadi eta drogak 2008* inkestako datuak abiapuntu hartuta, Drogamendekotasunen Euskal Behatokia, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Cannabisaren eguneroko kontsumoak gora egin du etengabe gizon gazteen artean, 2000. eta 2008. urteen artean

Cannabisari dagokionez, nabarmentzeko modukoa da hamar gaztetik hiruk (% 31,0) cannabis kontsumitu dutela gutxienez behin azken urtean, eta 2004. urtean, berriz, % 27,4 ziren. Bereziki kezagarria da, hari beretik jarraituz, cannabisaren eguneroko kontsumoaren tasen igoera; izan ere, 2000. urtean % 4,6koa zen, eta 2008an % 11,0koa. Substantzia honen eguneroko kontsumoaren tasa handiagoa da gizonengan eta 2000. urtean % 6,3 izatetik 2008. urtean % 16,9 izatera igaro da.

36. grafikoa

Cannabisaren eguneroko kontsumoaren* bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren arabera (%). EAE, 2000, 2004 eta 2008



* Cannabis egunero kontsumitzen dela azken hilabetearen egunero edo ia egunero —astearen lau egunetan edo gehiagotan— kontsumitu dela esan nahi du.

Iturria: Geuk egina, *Euskadi eta drogak 2008* inkestako datuak abiapuntu hartuta, Drogamendekotasunen Euskal Behatokia. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.


Drogen mendekotasunagatik tratamendua egiten hasten diren gazteen kopuruak behera egin du, 814 kasutik (2004) 699 kasura (2007); horrek esan nahi du % 14,0 egin duela behera lau urtean. Substantzien kontsumoari buruzko adierazleetan bezalaxe, gizonenak askoz ere handiagoak dira emakumeenak baino, eta 2007. urtean tratamendua egiten hasi ziren guztien % 82,0 hartu zuten. Drogen mendekotasunagatik tratamendua egiten hasten diren gazteen ehunekoa % 41,6tik (2002an) % 35,5era (2007an) jaitsi da.

2007an mila gaztetik bik hasi dute drogen mendekotasunagatik tratamendua. Gizonen kasuan, hiru dira milako eta, emakumeen kasuan, bat milako.

Behera egin du drogen mendekotasunagatik tratamendua egiten hasten diren gazteen kopuruak eta, haien artean, gizonek gehiago izaten jarraitzen dute

37. grafikoa

Drogen mendekotasunagatiko tratamenduen bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren arabera (zenbaki absolutuak). EAE, 2004-2007



Iturria: Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzak emandako datuak, Osasun eta Kontsumo Saila.

Tratamendua hasi behar izatea eragiten duen substantzia kokaina da kasuen % 47,8n, gero cannabisa (% 20,0) eta alkohola (% 10,6). 2004. urtetik 2007. urtera bitartean hiru droga horien ehunekoa ez da askorik aldatu. Heroinagatiko tratamenduen kopurua, ordea, izugarri gutxitu da (115 kasu 2004. urtean, eta 57 kasu 2007. urtean), eta hazi egin da cannabisaren kontsumoagatik tratamendua egiten hasten diren gazteen kopurua. Azken lau urteetan 125 kasu izatetik 140 kasu izatera igo da.


7.9. Osasun mentaleko arazoak dituzten gazteen ehunekoa txikiagoa da oraindik ere biztanleria osoarena baino, eta emakumeak dira kaltetuenak

Osasun mentaleko adierazleei dagokienez, 16 eta 24 urte bitarteko hamar gaztetik batek (% 11,6) erakusten ditu depresio- eta / edo antsietate-sintomak; hortaz, gaixotasun horren intzidentzia biztanleria osoarena baino txikiagoa da (% 15,4). Gazteen osasun mentaleko arazoaren prebalentzia sexuaren arabera bereiziz gero, emakumeen artean (% 15,9) ia bikoitza da gizonenaren aldean (% 7,5).

16 eta 24 urte bitarteko hamar gaztetik batek (% 11,6) ditu depresio- eta / edo antsietate-sintomak

38. grafikoa

**Depresio- eta / edo antsietate-sintomak dituzten pertsonak
16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean eta biztanleria osoan,
sexuaren arabera (%). EAE, 2007**



Iturria: Geuk egina, 2007. urteko EAEko Osasun Inkesta abiapuntu hartuta, Osasun eta Kontsumo Saila

16 eta 24 urte bitarteko gazteen osasun mentalaren indizea², 0tik 100era bitarteko eskalan, 74,9 puntukoa da; biztanleria osoarena, berriz, 71,7 puntukoa. Gizonek osasun mental hobea erakusten dute emakumeek baino adierazle horretan.

² Osasun mentalaren indizeak antsietatea, depresioa, kontrol emozionala eta oreka afektiboa hartzen ditu barne. Puntuazioa 0tik 100era doa; 52tik beherako puntuazioak depresioari eta antzeko arazoei dagozkien diagnostiko-irizpideei lotuta daude.

Balioak, jarrerak eta portaerak

Gazteen erdiek baino gehiagok esan dute kolektiboaren egoera hala-moduzkoa dela, ona alderdi batzuetan eta txarra beste batzuetan

8.1. Gehienek uste dute gazteen egoera hala-moduzkoa dela, nahiz eta ona dutela uste dutenen kopuruak gora egin

Egoera orokorrari buruzko balorazioari dagokionez, gazteen erdiek baino gehiagok esan dute egoera hala-moduzkoa dela, ona alderdi batzuetan eta txarra beste batzuetan. Azken zortzi urteetan, gora egin du gazteen egoera ona dela adierazten duen gazteen proportzioak, bai eta txarra dela esaten duen gazteen proportzioak ere; eta behera egin du, ordea, gazteen egoera hala-moduzkoa dela adierazten duen gazteen proportzioak.

8. taula

**Gazteen egoera orokorrari buruzko balorazioaren bilakaera (%).
EAE, 2000, 2004 eta 2008**

	2000	2004	2008
Ona	18,6	20,1	23,2
Hala-moduzkoa, ona alderdi batzuetan eta txarra beste batzuetan	63,4	59,4	56,5
Txarra	18,0	20,5	20,3

Iturria: Geuk egina, *Euskadiko gazteak 2000, Euskadiko gazteak 2004 eta Euskadiko gazteak 2008* azterlanetako datuak abiapuntu hartuta, Gazteen Euskal Behatokia.

Emaitza horiek adin-taldearen eta gizarte-klasearen arabera aztertuz gero, badira aldeak. Gazteen egoera orokorrari buruzko balorazio onena 20 urte baino gutxiago dituztenek egin dute, eta gai horrekiko kritikoenak, berriz, 24 urte baino gehiago dituztenak eta gizarte-klase baxuenekoak dira.

8.2. Politikarekiko interesa duen gazteen kopuruak behera egin du, EAEko demokraziaren funtzionamenduarekin gustura daudenen kopuruak, bai eta erlijioarekiko lotura dutenen kopuruak ere

Euskadiko gazteek berek emandako iritziek adierazten dutenez, politikaren alor tradizionalenetik gero eta urrunago daude: gazteen erdiak baino gehiago ez daude gustura demokraziaren funtzionamenduarekin, hamar gaztetik ia zortzik (% 78,0) adierazi dute politikarekiko interes gutxi edo bat ere ez dutela, eta erdiak baino gehiagok (% 53,4) esan dute ez dutela politikan parte hartu nahi. Politikarekiko interesik eza gero eta ugariagoa da gazteen artean, eta joera hori etengabea da 2004. urteaz geroztik.

39. grafikoa

Politikarekiko interesaren eta demokraziaren funtzionamenduari buruzko balorazioaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (%). EAE, 2002-2008



Iturria: Gazteen argazkiak 12, Gazteen Euskal Behatokia.

Gazteek sentitzen duten urruntzea ez da politika-gaietan soilik gertatzen, erlijio-kontuetan ere antzeman daiteke. Hamar gaztetik lauk (% 44,9) katolikotzat hartzen dute beren burua, nahiz eta % 7,6k bakarrik esan duen mezetara joaten dela. Beren burua katolikotzat hartzen duten (mezetara joan ala ez) gazteen ehunekoak behera egin du azken zortzi urteetan, eta, aldi berean, ateo direla esaten dutenen ehunekoak gora egin du.

Hamar gaztetik ia zortzik (% 78,0) adierazi dute politikarekiko interes gutxi edo bat ere ez dutela, eta gazteen % 55,0k esan du ez dagoela gustura demokraziaren funtzionamenduarekin


Gazte gehienak dira honako hauen aldekoak: sexu bereko pertsonen arteko ezkontza, eutanasia, legezko sexu-aldaketa, abortu aske eta borondatezkoa eta etxebizitza hutsen okupazioa

8.3. Gora egin du kolektibo batzuekiko intolerantzia-sentimenduak, bai eta etorkinenganako arbuio-sentimenduak ere

Gizarte-balioei, -portaerei eta -jarrerei dagokienez, gazte gehienak dira honako hauen aldekoak: sexu bereko pertsonen arteko ezkontza, eutanasia, legezko sexu-aldaketa, abortu aske eta borondatezkoa eta etxebizitza hutsen okupazioa. Eta heriotza-zigorraren, suizidioaren eta legez kanpoko droga guztiak legezta- tzearen aurkakoak dira. Beste gai batzuei buruzko iritzia banatuta daude; esate baterako, cannabisa legezta- tzeari eta eskoletan erlijioa irakasteari buruzkoak. Gazteen % 24,9k soilik esan du legez kanpoko droga guztiak legezta- tzearen aldekoa dela; heriotza-zigorraren aurkako iritzia, berriz, orokorragoa da (gazteen % 8,9 bakarrik da aldekoa).

40. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteek egoera batzuekiko duten iritzia (gai hauetako bakoitzaren alde dauden pertsonen %).
EAE, 2008




Iturria: Geuk egina, Euskadiko gazteak 2008 azterlaneko datuak abiapuntu hartuta, Gazteen Euskal Behatokia.

Gizarteko beste talde batzuekin batera bizitzeari buruzko gazteen jarrerari dagokienez, gazteek gehien arbuiatzen dituzten taldeak hauek dira: eskuin muturrekoak edo neonaziak (% 57,8), drogazaleak (% 46,0) eta ijitoak (% 41,8). Bilakaerari erreparatuta, nabarmentzeko modukoa da, halaber, 2000. urteaz geroztik gora egin duela atzerriko etorkinekiko gaitzespenak: % 9,2tik % 15,1era.

41. grafikoa

Auzokideekiko tolerantziaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (%). EAE, 2000, 2004 eta 2008*



* Aipatutako taldeetako kideren bat auzokide izatea axola zaiela adierazi dutenen ehunekoa.

Iturria: Geuk egina, *Euskadiko gazteak 2000, Euskadiko gazteak 2004 eta Euskadiko gazteak 2008* azterlanetako datuak abiapuntu hartuta, Gazteen Euskal Behatokia.

Etorkinenganako jarrerari dagokionez, denboraren joanean behera egin du pixkanaka Euskadin sartzea ahalik eta gehien erraztearen alde dauden gazteen ehunekoak, eta immigrazioarekiko jarrera gero eta itxiagoa da. Horrez gain, EAEn etorkin gehiegi daudela deritzotenen ehunekoak gora egin du nabarmen 2000. urteaz geroztik.


Behera egin du pixkanaka etorkinei Euskadin sartzea ahalik eta gehien erraztearen alde dauden gazteen ehunekoak, eta gora egin du hainbat taldeenganako intolerantzia-sentimenduak

EAEen etorkin gehiegi daudela deritzotenen ehunekoak gora egin du nabarmen 2000. urteaz geroztik

Gazteak inplikatur egon diren genero-indarkeriako kasuen kopuruak gora egin du nabarmen azken lau urteotan, eta, batez ere, adin-tarte gazteenen baitan

42. grafikoa

EAEen bizi diren atzerritarren kopuruari buruzko iritziaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (%). EAE, 2000, 2004 eta 2008



Iturria: Geuk egina, Euskadiko gazteak 2000, Euskadiko gazteak 2004 eta Euskadiko gazteak 2008 azterlanetako datuak abiapuntu hartuta, Gazteen Euskal Behatokia.

8.4. Genero-indarkeriako kasuen kopuruak gora egin du

Gazteak inplikatur egon diren genero-indarkeriako kasuen kopuruak —Herrizaingo Sailak erregistratutakoak— gora egin du nabarmen azken lau urteotan, eta, batez ere, adin-tarte gazteenen artekoak. Mota horretako delituen ondorioz izandako 18 urte baino gutxiagoko emakume salatzaileen kopurua % 118 hazi da epealdi horretan; 18 urtetik 32 urtera bitarteko emakumeen artean, berriz, % 62 hazi da, biztanleria osoan hazitakoaren antzera. 2008. urtean, erregistratutako genero-indarkeriako kasuen ia erdiak (% 43,7) 32 urte baino gutxiagoko emakumeenak izan dira.

9. taula

Emakumeen aurkako indarkeriako kasuen bilakaera, biztanleria osoan eta 32 urtera arteko biztanleen artean (zenbaki absolutuak eta %). EAE, 2004-2008

	Biztanleria osoa		<18 urte		18-32 urte	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
2004	2.704	100	90	3,3	1.059	39,2
2005	3.498	100	111	3,2	1.273	36,4
2006	3.700	100	150	4,1	1.419	38,4
2007	4.205	100	198	4,7	1.632	38,8
2008	4.375	100	196	4,5	1.717	39,2
Gehikuntza 2004-2008	+62%		+118%		+62%	

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak emandako datuak.

32 urte baino gutxiago dituzten emakumeen artean salaketa jartzea eragin duen arrazoi nagusia familia barruko ohiko tratu txarrak dira (delitu eta hutsegite guztien % 57,0). Delitu-mota hori % 50,0 hazi da 2005. urteaz geroztik.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari dagokionez, bi alderdi hauek dira nabarmentzeko modukoak:

- Bikotean bizi diren gazte gehienek adierazi dutenez, etxeko lanak erdi bana egiten dituzte. Nolanahi ere, gizon gehiagok adierazi dute etxeko lanak erdi bana egiten dituztela emakumeek baino (% 64,0 eta % 48,0, hurrenez hurren). Horrez gain, seme-alabak edo familia dutenek adierazi dute gehien desberdintasunak daudela etxeko lanen banaketan. Kasu horietan, dirudienez, emakumeek dute zama handiagoa.
- Lanean sexuagatiko diskriminazioa gertatzen ote den galdetuta gazteei, hamar gaztetik seik pentsatzen dute gizona zein emakumea izateak ez duela eraginik lanpostu bat lortzeko baldintza berberetan. Hala ere, ez dute hala pentsatzen urte gehiago dituzten emakumeek; izan ere, gehiagok adierazi dute diskriminazioa dagoelako sentipena dutela. Baliteke, iritzia gehiago zehazteko eskarmentua izan dutelako eta benetako arazoen kontzientzeari dagoelako izatea hori.

Hamar gaztetik seik pentsatzen dute gizona zein emakumea izateak, baldintza berberetan, ez duela eraginik lanpostu bat lortzeko. Urte gehiago dituzten emakumeen artean diskriminazio-sentipena handiagoa da

Gazteen % 86,0k garrantzi handia ematen dio sexualitateari

8.5. Gazteek gero eta garrantzi handiagoa ematen diote sexualitateari

EAEko gazte gehien-gehienek garrantzi handia ematen diote sexualitateari: % 30,0k dio haientzat oso garrantzitsua dela, eta % 56,0k nahiko garrantzitsua dela irizten diote. Gazteen % 12,0rentzat, berriz, garrantzi gutxikoa edo garrantzi gabea da. Hori horrela izanik ere, gai horri buruz alde nabarmenak daude sexua- ren eta bizikidetzeta-moduen arabera: mutilek neskek baino garrantzi handiagoa ematen diote; bikotekidearekin (ezkondata ala ez) bizi direnek garrantzitsuago- tzat hartzen dute sexualitatea hala bizi ez direnek baino. Sexualitateari ematen zaion garrantzia handiagoa da, halaber, adinean gora egin ahala.

Alde handirik ez badago ere, gazteek sexualitateari emandako garrantziaren inguruan etengabeko hazkundea hauteman dugu: 2000. urtean % 24,0k hartzen zuen oso garrantzitsutzat, 2004. urtean % 28,0k eta 2008an % 30,0k. Nolanahi ere, EAEko gazteek sexualitateari ematen dioten garrantzia Estatuko gazteek ematen diotena baino txikiagoa da: EAEn gazteen % 30,0k hartzen du oso ga- rrantzitsutzat sexualitatea, eta Estatuan % 42,0k pentsatzen du hala.

10. taula

15 eta 29 urte bitarteko gazteek sexualitateari emandako garrantziaren bilakaera (%). EAE, 2000, 2004 eta 2008

	2000	2004	2008
Oso garrantzitsua	24	28	30
Nahiko garrantzitsua	57	57	56
Garrantzi txikikoa	14	13	10
Garrantzi gabekoa	3	1	2
Ed/Ee	2	2	3


Iturria: Euskadiko gazteak 2008, Gazteen Euskal Behatokia.

8.6. Gehienak oinez ibiltzen dira batetik bestera, nahiz eta autoa izan gehien erabiltzen den garraiobidea asteburuetan batetik bestera mugitzeko

Euskadiko gazteek (% 77,0) egunero batez ere oinez ibiltzen direla adierazi dute. % 37,0k egunero erabiltzen dute autoa edo motoa eta % 40,0k garraiobide publiko bat —autobusa, metroa edo trena—.

43. grafikoa

15 eta 29 urte bitartekoek egunero erabiltzen dituzten garraiobideak (%).
EAE, 2008*



* Garraiobide horiek egunero edo ia egunero erabiltzen dituztela adierazi duten gazteen ehunekoa.

Iturria: Euskadiko gazteak 2008, Gazteen Euskal Behatokia.

Generoari dagokionez, emakumeek gehiagotan erabiltzen dute garraiobide publikoa, eta gizonek, berriz, autoa darabilte hein handiagoan. Horrez gain, adinean gora egin ahala, auto partikularra gehiago erabiltzen da, eta distantzia handiagoak egiten dira. Asteburuetan batetik bestera joateko gazteek dituzten ohiturei dagokienez, merezi du nabarmentzea gazte guztien erdiak baino gehiago (% 50,1) beren udalerrietatik kanpo joaten direla lagunekin ateratzen direnean, eta autoa dela joan-etorri horiek egiteko gehien erabiltzen duten garraiobidea.

Euskadiko gazteek (% 77,0) egunero batez ere oinez ibiltzen dira. Bai autoaren eta motoaren erabilera bai garraio publikoarena % 40aren inguruan dabilta


Euskadiko gazteen
% 76,5ek adierazi du hiru
ordu libre edo gehiago
dituela lanegunetan

8.7. Lau gaztetik hiruk egunean hiru ordu libre baino gehiago dituzte aisiarako, eta batez ere lagunekin egoteko erabiltzen dituzte

Euskadiko gazteen % 76,5ek adierazi du batez beste hiru ordu libre edo gehiago dituela lanegunetan. Egunean hiru ordu libre baino gehiago dituztela adierazi dutenen artean, gizonen ehunekoa handiagoa da emakumeena baino.

44. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteen aisiarako denbora librearen banaketa, sexuaren arabera (%). EAE, 2008



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiaren adierazle-sistema.

Horrez gain, denbora libre asko edo gutxi izatea, neurri handi batean, seme-alabak edukitzearen baitan dago. Hala ere, alderdi horretan hau da nabarmentzeko moduko datua: seme-alabak dituzten emakumeek denbora libre gutxiago dute seme-alabarik ez duten emakumeek baino, eta gizonen artean, ordea, aurkakoa gertatzen da, denbora libre gehiago dutela adierazi duten gizonen ehunekoa handiagoa baita aita direnen artean.

Gazteen artean, lanegunetan aisialdiko jarduera ohikoenak telebista ikustea (% 49,0), lagunekin edo bikotekidearekin egotea (% 45,0) eta musika entzutea (% 42,0) dira. Kirola egitea (% 26,0) eta etxean ordenagailuarekin denbora-pasa aritzea (% 24,0) ere nahiko jarduera ohikoak dira gazteen artean. Asteburuetan gazteek nahiago izaten dituzten jarduerak zertxobait desberdinak dira lanegunetan egiten dituzten jardueren aldean, lagunekin edo bikotekidearekin egotea izan ezik. Izan ere, jarduera hori da gazte gehienek (% 59,0) asteburuetan gehien egiten dutena, jarduera hauen gain: tabernetara eta kafetegietara joan (% 33,0), diskoteketara joan (% 23,0), kirola egin (% 22,0) edo atsedean hartu (% 19,0).

8.8. Gero eta gehiago dira etxean ordenagailua eta Interneterako sarbidea duten gazteak, eta ia gazte guztiek dute eskuko telefonoa

Gazteen % 77,0k du etxean ordenagailua eta Interneterako sarbidea, duela lau urte baino % 17,0k gehiagok. Bestalde, % 8,0 egin du behera etxean ordenagailua ez dutenen kopuruak, eta, beraz, gazteen % 14,0k ez du ordenagailurik. Aldi berean, behera egin du etxeko ordenagailuan Interneterako sarbidea ez duten gazteen ehunekoak (% 9,0 egin du behera). Horrez gain, nabarmentzeko modukoa da etxean ordenagailua izatea eta Interneterako sarbidea izatea desberdina dela adinaren eta gizarte-klasearen arabera.

Internet zenbat erabiltzen duten galdetuta, gazteen ia erdiek (% 49,8) adierazi dute astean ordubete eta zazpi ordu bitartean erabiltzen dutela. Hala ere, gazteen kopuru handi samar batek esan du astean ordubete baino gutxiago konektatzen dela (% 18,4), eta gazteen % 17,8k adierazi du zazpi eta hamabost ordu bitartean erabiltzen dutela astean. Gazteen % 9,2k adierazi du astean 20 ordu baino gehiago erabiltzen duela Internet.

Harremanetarako, denbora-pasarako eta informazioa lortzeko erabiltzen dute gazteek Internet, eta, neurri txikiagoan, ikasteko eta prestakuntza jasotzeko. Apenas erabiltzen dute erosketak egiteko eta ezagutzen ez dituzten pertsonekin harremanak izateko. Aldi berean, gazteentzat Internet batez ere da komunikatzeko tresna (% 44,2), gauza askotarako baliagarria den tresna (% 32,9) eta ezinbesteko tresna (% 32,8).

Hamar gazteik ia zortzik dute ordenagailua eta Interneterako sarbidea etxean, eta % 96,5ek du eskuko telefonoa

Euskadiko gazteen % 6,4k soilik egiten ditu gaur egun boluntario-jarduerak GKEren batean edo antzeko erakunderen batean

EAEko hamar gaztetik lauk esan dute elkarteren bateko kide direla


8.9. Gazteen % 6,4k soilik egiten ditu boluntario-jarduerak, baina hamar gaztetik lau dira elkarteren bateko kide

Euskadiko gazteen % 6,4k soilik egiten ditu gaur egun boluntario-jarduerak GKEren batean edo antzeko erakunderen batean. Gazte gehienek esan dute une horretan ez dutela boluntario-motako jarduerarik egiten, baina nahiko luketela (% 37,2). Gazteen kopuru handi samar batek argi eta garbi adierazi du, ordea, aurkako jarrera halako lan-motei buruz, gazte horiek esan baitute ez dituztela egiten eta ez lituzketela egingo (% 22,5). Emakumeek boluntario-lanekiko jarrera hobea erakusten dute gizonek baino. Boluntario lanetan aritzen diren gizonen ehunekoa eta emakumeen ehunekoa, gaur egun, ia-ia berdinak dira. Hala ere, emakume gehiagok (% 16,4) esan dute lehendik ere egin dituztela boluntario-lanak gizonek baino (% 10,0). Gizonen % 29,2k esan du, halaber, ez lituzkeela egingo, eta hori bera esan duten emakumeen kopurua txikiagoa da (% 16,0).

Nolanahi ere, EAEko hamar gaztetik lauk esan dute elkarteren bateko kide direla. Gizon gehiago dira (% 48,9) elkarreterako kide emakumeak baino (% 33,7); ehuneko horrek, bestalde, behera egiten du gizarte-eskala sozioekonomikoan behera egin ahala eta adinean gora egin ahala. Bilakaerari erreparatuta, 1990. eta 2008. urteen artean nahiko egonkorra izan da elkarteren bateko kide diren gazteen proportzioa, % 44,0 eta % 41,0 bitartekoa. Kirol-elkarreak dira gazte gehien (% 22,0) biltzen dituzten elkarreak; alde handiarekin, gainera.

45. grafikoa

Egun elkarteren bateko kide diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, sexuaren eta adin-taldeen arabera (%). EAE, 2008



Iturria: Geuk egina, *Euskadiko gazteak 2008* azterlaneko datuak abiapuntu hartuta, Gazteen Euskal Behatokia.

Kirol-elkarteak dira gazte gehien (% 22,0) biltzen dituzten elkarteak, alde handiarekin, gainera

- BILBAO GAZTAÑAGA, Miren eta Bakarne ZUAZUA ASTARLOA (koord.):** *Euskadiko gazteak 2008*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2008.
- EUSKO LEGEBILTZARRAREN ALDIZKARI OFIZIALA.** IX Legealdia, 21. zk., 2009-07-24 [linean], <<http://www.parlamento.euskadi.net/pdfdocs/publi/1/09/000021.pdf>>. [Kontsulta: 2009ko azaroaren 10a.]
- ESPAINIAKO GAZTERIAREN KONTSEILUA:** *OBJOVI, 1. zk.*, (2002ko laugarren hiruhilekoa) [linean], Madril: Espainiako Gazteriaren Kontseilua, <[http://www.cje.org/C6/C0/OBJOVI% 201% 20\(cuarto% 20trimestre% 202000/default.aspx?lang=es-ES\)](http://www.cje.org/C6/C0/OBJOVI%201%20(cuarto%20trimestre%202000/default.aspx?lang=es-ES))>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 6a.]
- OBJOVI, 5. zk.*, (2003ko laugarren hiruhilekoa) [linean], Madril: Espainiako Gazteriaren Kontseilua, <[http://www.cje.org/C18/C19/OBJOVI% 205% 20\(cuarto% 20trimestre% 202000/default.aspx?lang=es-ES\)](http://www.cje.org/C18/C19/OBJOVI%205%20(cuarto%20trimestre%202000/default.aspx?lang=es-ES))>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 6a.]
- OBJOVI, 9. zk.*, (2004ko laugarren hiruhilekoa) [linean], Madril: Espainiako Gazteriaren Kontseilua, <[http://www.cje.org/C7/C19/Anuario% 20OBJOVI% 20\(2004\)/default.aspx?lang=es-ES](http://www.cje.org/C7/C19/Anuario%20OBJOVI%20(2004)/default.aspx?lang=es-ES)>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 6a.]
- OBJOVI, 13. zk.*, (2005eko laugarren hiruhilekoa) [linean], Madril: Espainiako Gazteriaren Kontseilua, <[http://www.cje.org/C14/C18/OBJOVI% 2013% 20\(cuarto% 20trimestre% 2020/default.aspx?lang=es-ES\)](http://www.cje.org/C14/C18/OBJOVI%2013%20(cuarto%20trimestre%2020/default.aspx?lang=es-ES))>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 6a.]
- OBJOVI, 17. zk.*, (2006ko laugarren hiruhilekoa) [linean], Madril: Espainiako Gazteriaren Kontseilua, <[http://www.cje.org/C17/C13/OBJOVI% 2017% 20\(cuarto% 20trimestre% 20de/default.aspx?lang=es-ES\)](http://www.cje.org/C17/C13/OBJOVI%2017%20(cuarto%20trimestre%20de/default.aspx?lang=es-ES))>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 6a.]
- OBJOVI, 21. zk.*, (2007ko laugarren hiruhilekoa) [linean], Madril: Espainiako Gazteriaren Kontseilua, <[http://www.cje.org/C13/C18/OBJOVI% 2021% 20\(cuarto% 20trimestre% 20de/default.aspx?lang=es-ES\)](http://www.cje.org/C13/C18/OBJOVI%2021%20(cuarto%20trimestre%20de/default.aspx?lang=es-ES))>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 6a.]
- OBJOVI, 25. zk.*, (2008ko laugarren hiruhilekoa) [linean], Madril: Espainiako Gazteriaren Kontseilua, <[http://www.cje.org/C15/C2/OBJOVI% 2025% 20\(Cuarto% 20trimestre% 2020/default.aspx?lang=es-ES\)](http://www.cje.org/C15/C2/OBJOVI%2025%20(Cuarto%20trimestre%2020/default.aspx?lang=es-ES))>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 6a.]
- EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUA:** *Proyecto de informe de situación de 2008 del Consejo y de la Comisión sobre la ejecución del programa de trabajo «Educación y Formación 2010» [2008ko egoeraren txosten-proiektua, Kontseiluarena eta Batzordearena, «Hezkuntza eta Prestakuntza 2010» lan-programa gauzatzeari buruzkoa]* [linean], Brusela, 2007ko azaroaren 12a, <<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2007:0703:FIN:ES:PDF>>. [Kontsulta: 2009ko irailaren 10a.]
- EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA:** *EAEko irakaskuntzaren egoerari buruzko txostena (2002-2004)* [linean], 2005-06-28, <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/did2/es_2053/adjuntos/informe_2002_2004/entrada.pdf>. [Kontsulta: 2009ko azaroaren 2a.]
- EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILA. GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA:** *Osasuna eta gazteak. Euskadiko gazteen ikusmoldeak osasunari buruz*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2008.
- Euskadiko gazteen mugikortasun espazialaren ereduak*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2008.

—*Gazteen adierazleak 2009*, Vitoria-Gasteiz, inprentan.

—*Encuesta de creencias, ética y pertenencia religiosa*, Bilbao, 2008 (argitaragabea).

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. ISEI - IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO EUSKAL INSTITUTUA: *Euskal Herriko hezkuntza-adierazleen sistema 2008* [linean], <<http://www.isei-ivei.net/cast/indexcas.htm>>. [Kontsulta: 2009ko azaroaren 2a.]

EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE-SEGURANTZA SAILA: *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta 2008* [linean], Vitoria-Gasteiz, 2008, <http://www.juslan.ejgv.euskadi.net/r33-2288/es/contenidos/informe_estudio/enc_pob_08/es_pobreza/adjuntos/Informe.doc>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 27a.]

EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN ETA KONTSUMO SAILA: *Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkesta, EAEOI 2007* [linean], Vitoria-Gasteiz, <http://www.osanet.euskadi.net/r85-escav/es/contenidos/informacion/encuesta_salud/es_escav/encuesta_salud.html>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 20a.]

—*Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduren Erregistroaren txostena, EAE 2007*, [linean], Vitoria-Gasteiz, <http://www.osanet.euskadi.net/r85-publ01/es/contenidos/informacion/estado_salud/es_5463/interrupcion_embarazo_c.html>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 14a.]

EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIAK SAILA: *Euskal Autonomia Erkidegoko Drogen Mendekotasunei buruzko V. Plana. 2004-2008*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2006.

EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA: *EAEko etxebizitzaren beharra eta eskaerari buruzko inkesta 2008* [linean], Vitoria-Gasteiz: Etxebizitzaren Euskal Behatokia, <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-18874/es/contenidos/informe_estudio/necesidad_demanda_definitivos/es_nec_dema/nec_dem_definitivos.html>. [Kontsulta: 2009ko irailaren 10a.]

—*EAEko hutsik dauden etxebizitzetako buruzko bi urtez behingo estatistika, 2005*; [linean], Vitoria-Gasteiz: Etxebizitzaren Euskal Behatokia, <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-18874/es/contenidos/estadistica/estadistica_vivienda_vacia/es_estvdava/estad_viviendavacia.html>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 23a.]

—*EAEko hutsik dauden etxebizitzetako buruzko bi urtez behingo estatistika, 2007*; [linean], Vitoria-Gasteiz: Etxebizitzaren Euskal Behatokia, <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-18874/es/contenidos/estadistica/estadistica_vivienda_vacia/es_estvdava/estad_viviendavacia.html>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 6a.]

—*Eskaintza inmobiliarioari buruzko inkestaren taula estatistikoak* [linean], Vitoria-Gasteiz: Etxebizitzaren Euskal Behatokia, <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-18874/es/contenidos/estadistica/tablas_estadisticas/es_tblestad/tablas_est_oferta.html>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 23a.]

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIAK SAILA. LANBIDE (Enplegurako Euskal Zerbitzua): *Kontratazioen analisia 2002* [linean], Vitoria-Gasteiz: Lan Merkatuaren Behatokia, <<http://www.lanbide.net/descargas/egailancas/publicaciones/Contrataciones/contra02.PDF>>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 19a.]

—*Kontratazioen analisia 2004* [linean], Vitoria-Gasteiz: Lan Merkatuaren Behatokia, <<http://www.lanbide.net/descargas/egailancas/publicaciones/Contrataciones/contra06.pdf>>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 19a.]

—*Kontratazioen analisia 2008* [linean], Vitoria-Gasteiz: Lan Merkatuaren Behatokia, <<http://www.lanbide.net/descargas/egailancas/publicaciones/Contrataciones/contra08.pdf>>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 19a.]

—*Langile-bizitza aktiboa hasi direnei egindako inkesta* [linean]: *2005eko promozioa*, Vitoria-Gasteiz: Lan Merkatuaren Behatokia 2008, <http://www.lanbide.net/descargas/egailancas/estadisticas/inseruniver/2005/INFORME%20DEL%20ESTUDIO_UPV2005.pdf>. [Kontsulta: 2009ko azaroaren 16a.]

—*Langile bizitza aktiboa hasi direnei egindako inkesta. Lanbide Heziketa. 2006ko promozioa* [linean], Vitoria-Gasteiz, <http://www.lanbide.net/descargas/egailancas/estadisticas/publinser/html/FP_2006.pdf>. [Kontsulta: 2009ko azaroaren 2a.]

—*Unibertsitarioen laneratzea (2007). 2004ko promozioa* [linean], Vitoria-Gasteiz, <http://www.lanbide.net/descargas/egailancas/estadisticas/inseruniver/2004/UPV_EHU_2004.pdf>. [Kontsulta: 2009ko azaroaren 4a.]

—*Unibertsitarioen laneratzea. Graduondoko ikasketak: 2003ko promozioa* [linean], Vitoria-Gasteiz, <http://www.lanbide.net/descargas/egailancas/estadisticas/inseruniver/2003/PG03_INFORME.pdf>. [Kontsulta: 2009ko azaroaren 4a.]

GUTIÉRREZ PÁRAMO, Francisco Javier (koord.): *Euskadiko gazteak 2000*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2000.

—*Euskadiko gazteak 2004*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2004.

ESPAINIAKO GAZTERIAREN ERAKUNDEA (INJUVE): *Informe Juventud en España 2008* [linean], Madril: INJUVE, <<http://www.INJUVE.mtas.es/INJUVE/contenidos.item.action?id=1531688780>>. [Kontsulta: 2009ko azaroaren 2a.]

ESPAINIAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA MINISTERIOA: *Las cifras de la educación en España. Estadísticas e indicadores. 2008ko edizioa* [linean], Madril: Hezkuntza Ministerioa, <<http://www.educacion.es/mecd/jsp/plantilla.jsp?id=3131&area=estadisticas&contenido=/estadisticas/educativas/cee/2007A/cee-2007A.html>>. [Kontsulta: 2009ko azaroaren 2a.]

—*Datos y cifras. Curso escolar 2009-2010* [linean], Madril: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa, <http://www.educacion.es/mecd/estadisticas/educativas/dcce/Datos_Cifras_web.pdf>. [Kontsulta: 2009ko azaroaren 2a.]

ESPAINIAKO GOBERNUKO OSASUN ETA KONTSUMO SAILA. Drogei buruzko Plan Nazionalerako Ordezkaritza: «*Gizartea drogen aurrean*» izeneko foroa [linean], <<http://www.pnsd.msc.es/Categoria3/prevenci/Grupos.htm>>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 28a.]

—*Alkoholari buruzko txostena, Drogei buruzko Plan Nazionalerako Ordezkaritzaren Batzorde Klinikoa* [linean], Madril: 2007, <<http://www.pnsd.msc.es/Categoria2/publica/publicaciones/home.htm>>. [Kontsulta: 2009ko urriaren 28a.]

EUSKO JAURLARITZAKO ENPLEGU ETA GIZARTE GAETAKO SAILA. IMMIGRAZIOAREN EUSKAL BEHATOKIA (IKUSPEGI): *EAE n bizi diren atzerritarrei buruzko ikerketa 2007* [linean], Bilbao, <http://www.ikuspegi.org/es/investigacion/investigacion_ikuspegi.php>. [Kontsulta: 2009ko azaroaren 5a.]

EUSKO JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA. PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA: *Gazteen argazkiak, 11. zk., 2007* [linean], Vitoria-Gasteiz, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea – Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza, 2008-04 <http://www1.euskadi.net/estudios_sociologicos/retratos_c.apl>. [Kontsulta: 2009ko azaroaren 3a.]

—*Gazteen argazkiak, 12. zk.,* [linean], Vitoria-Gasteiz: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea – Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza, 2009, <http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7657/es/contenidos/informacion/gazteen_argazkiak_bilduma/es_5561/es_19589.html>. [Kontsulta: 2009ko azaroaren 9a.]

RUBIO GIL, Ángeles (zuzendaria): *Adolescentes y jóvenes en la red* [linean]: *factores de oportunidad*, Madril: Espainiako Gazteriaren Erakundea, 2009, <<http://www.injuve.migualdad.es/injuve/contenidos.item.action?id=1724774781&menuId=57206943>>. [Kontsulta: 2009ko azaroaren 17a.]

SII S. DOKUMENTAZIO ETA IKERKETA ZENTROA: *EAEko II. Gazte Planaren inpaktu-ebaluazioa*, Donostia: SiiS - Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa, 2009 (argitaragabea).

Iturri hauek ere erabili dira

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren datu-baseak <www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>.
- EUSTATen datu-baseak (Euskal Estatistika Erakundea) <<http://www.eustat.es>>.
- INEren datu-baseak (Estatistikako Institutu Nazionala) <<http://www.ine.es>>.
- Lanbideren datu-baseak (Enplegurako Euskal Zerbitzua) <<http://www.lanbide.net>>.
- Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Trafiko Zuzendaritzak emandako datuak.
- Osasun eta Kontsumo Sailaren Hiesa Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Planeko datuak.
- Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurei eta Drogen mendekotasunagatik Hasitako Tratamenduei buruzko datuak, Osasun eta Kontsumo Sailaren Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzak emandako datuak.
- Kontsulta medikoei buruz Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak emandako datuak.
- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Etxebide zerbitzuan etxebizitza eskatu dutenen erregistroko datu-basea neurrirra ustiatuta.
- Eustat erakundearen Inkesta Demografikoa 2006 txosteneko zenbait datu neurrirra ustiatuta.
- Gazteen Euskal Behatokiaren adierazle-sistema <<http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7753x/es/estatistikak/temas.apl?idioma=c>>.
- Etxebizitza hasi eta amaituen estatistikaren arabera egindako datuen taulak, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.
- Eskaintza inmobiliarioari buruzko estatistikaren arabera egindako datuen taulak, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.
- Biztanleria Jardueraren Arabera Saillatzeko Inkestaren arabera egindako datuen taulak, Eustat erakundeak egina.

